

ARGIA

PALESTINAKO GENOZIDIOAK URTEBETE

Infernuaren ateak perez pare zabaldu ditu Israelek

Ekialde Hurbila amildegia ertzean

26-31. orrialdeak



#2.887 | 2024 / 10 / 06 | 4,00 €



**Biosfera
suntsitzeak
ere aldatzen
du klima**

12 | COP16



**Nolako ikasle/
langileak sortu
nahi ditu Lanbide
Heziketaren legeak?**

32 | HEZKUNTZA



**Polemikarik
ez da falta izan
Zinemaldiaren
72. edizioan**

46 | ZINEMA



Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

280 orrialde, 211 argazki

Marc Badal eta Miguel Arribas Kelo

Liburua 26€



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | CIRA CRESPO
- 23 | HIRUKI LARROXA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | INMA ERREA

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO


 AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA**

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

JOSU SANTESTEBAN / ARGIA-CC-BY-SA



16 | **MONTSE BORDA**

Pintatzeaz eta lan hori fabrikako lanaz uztartzeaz mintzatu da iruindarra, Amets Aranguren kazetariarekin. Fabrikako materialekin egin zituen hainbat koadro, eta pintzel lehorren teknika nola egiten duen azaldu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Eta klimaren konponbidea baso eta paduretan ere balego?

Urko Apaolaza

28 | GAZAREN AURKAKO GENOZIDIOAK URTEBETE

Israelgo tortura zentroak ez dira berriak, urriaren 7ko indarkeria eragin zutenak dira

Jonathan Cook

30 | GAZAREN AURKAKO GENOZIDIOAK URTEBETE

Gerra hurrengo fasera iritsi da

Moon of Alabama

32 | HEZKUNTZA

Enpresak ikasleei edukiak irakasten jarri ditu Lanbide Heziketaren Legeak

Mikel Garcia

35 | GIZARTEA | 2024KO EUSKARABILDUA

Teknologia artifiziala baino, pertsonak eta komunitateak lehen lerrora

Julen Ugartemendia

46 | KULTURA

Donostiako Zinemaldiak eman duena

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Leire Ibar, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUKEKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
 komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
 SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

 Ekoedizioaren Institutuko
 bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
 sareko kide gara

Amatasuna borondatezkoa, ala ez da izanen

Gordin esan behar da: norberaren gorputzaz erabakitzea ez da eskubide unibertsala. El Salvador, Honduras, Nikaragua, Dominikar Errepublikak, Mexikoko eta AEBetako estatu batzuk, Andorra, Malta, Filipinak eta Senegalen debekatuta dago, esaterako. Abortua baimentzeko, legea erreformatua izan den herrietan ere, eskubide horrek arriskuan jarraitzen du abortuaren eta genero askatasunaren aurkako diskurtso –eta praktika– neofaxisten uholdearen erdian. Berbarako, Italian 10 medikutik 7k uko egiten diote abortua egiteari. Nazio Batuen Populazioaren Funtsaren datuen arabera, munduko emakumeen heriotzen %8 abortu ez-seguruen ondorioz dira. Areago, abortu libre, seguru, publiko eta unibertsalerako eskubidea lortzeko lan egiten duten ekintzaile, hezitzaile eta osasunaren arloko profesional askok estigmatizazioa, larzeria eta kriminalizazioa jasaten dituzte.

📍 Abortu Seguruaren Nazioarteko Eguneko –irailak 28– mobilizazio bat Mexikon.

S. FLORES/AFP  AXIER LOPEZ





Epaiketak euskaraz egin ahal izatea bermatu behar duela esan dio Europako Kontseiluak Espainiari

ERREDAKZIOA

Justizian, osasungintzan eta gizarte zerbitzuetan euskara bermatu dadin, zerbitzu publikoak euskaraz jaso ahal izan daitezten, Nafarroako zonifikazioa amaitu dadin eta ETB3 Nafarroa osoan ikus dadin neurriak hartzeko eskatu dio Espainiako Gobernuari Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak, beste hainbat ohartarazpenen artean.

Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren sinatzaileetako bat da Espainiako Estatuak, eta berau betetzeko hainbat gomendio eman dizkio Europako Kontseiluak, Itunaren seigarren ebaluazioan. Europatik egin diren ohartarazpen eta gomendioak “irromoak” direla ikusita, pozik agertu dira Euskalgintzaren Kontseilua eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia, baina aipatzen diren gomendioetatik harago ere “asko dago egiteke”, gogoratu dute.

Besteak beste, Europako Kontseilutik honako eskaerak egin dizkiote Espainiari. Batetik, Hego Euskal Herrian prozesu judizialak euskaraz egin ahal izatea bermatzeko araudia ezartzea, aldeetako batek hala eskatzen badu. Dokumentazioa euskaraz jasotzeko aukera ere bermatu beharko litzatekeela dio. Hain justu,

Behatokiak gogoratu du hilabete honetan herritar batek erregistratutako kexa: demanda bat euskaraz aurkeztu du eta epaileak erantzun dio bost egun dituela demanda gaztelaniaz aurkezteko

tu, Behatokiak nabarmendu du hilabete honetan herritar batek erregistratutako kexa: demanda bat euskaraz aurkeztu du eta Azpeitiko auzitegiko epaile batek erantzun dio bost egun dituela demanda gaztelaniaz aurkezteko.

Azken finean, prozesu judizialean euskara bermatzeko epaileei, magistratuari eta fiskalei euskaraz jakitea eskatzea nahitaezkoa dela adierazi dute Behatokitik: “Momentu honetan, hori ere ez dago”.

ZONIFIKAZIOA AMAITZEKO

Espainiako Estatuak administrazioek Hego Euskal Herrian eskaintzen dituzten zerbitzuak euskaraz jaso ahal izateko neurriak hartzea beharrezkoa dela ere badiu Europako Kontseiluak, eta urratsak eman behar direla Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, batik bat osasun eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera errazteko.

Beste gomendio azpimarragarri batzuk: Nafarroako zonifikazioak euskararen erabilerekin sortzen dituen oztopoak ezabatzea, Estatuak Buletin Ofiziala euskaraz ere izatea, eta ETB3 Nafarroa osoan ikusi ahal izatea. Adituek diote, gainera, administrazio publikoetan euskararen ezagutza duten profesional kopurua oraindik urria dela eta horri buelta emateko neurriak hartu behar direla, berdin zerbitzu publikoren bat eskaintzen duten enpresen kasuan ere.

Trebiñuri lotuta, Gaztela eta Leongo administrazioarentzako eskaera bat ere badu txostenak: Espainiako Gobernuarekin batera neurriak har ditzala Trebiñun euskararen irakaskuntza sustatzeko. ●



Ez naiz gai



UXUE APAOLAZA LARREA

Badira gaiak momentuan begiratu ezin ditudanak. Ez dakit gertatzen zaizuen. Eta ezin ditut begiratu iragan izan gabe, susmoa dudalako ezin altxatzeraino itoko nautela, eta gertaeraz gain, gertaerari buruzko letrek ere lehendik ahula zen norbait zapaltzen dutela. Eta uste dut ez dela lehen aldia zerrenda hau egiten dudana. Gogoan dut Alviako tren gidadaten zuen gizona: 80 pertsona hil ziren tren istripuan, gidaria komunikabideek. Gogoratzen naiz Madrilgo ospitaleko erizain batez, ez zegokion lekuan lanean, ez zegokion ardurak gainean. Ospitaleko gaixo bat hil zuen agintariaren utzikeriak, erizain bat komunikabideek. Gogoan dut 2016 hartan bost gizonen neska bat bortxatu zutela San Ferminetan, eta zenbat aldiz komunikabideek. Gogoan dut Miren Larrion. Ezin izan nien berriei momentuan segi, egitea bera zitzaidalako agresiboa, bat-batean denok elkarrekin ari bagina bezala jipoi batean parte hartzen, gertatutakoa larria izanik ere, zerbait larriagoa ontzen ari bagina bezala. Udan Espainiar estatuan kezka sortu zen, baita hemen ere, zer egin, nola banatu hain gaizki banatuta zeuden zerak, haurrak. Batzuek pila bat artatu behar omen zituzten: milara ez ziren iristen gurean. Komunikabideen kargaren eta gizaki zuriaren zikoizkeriaren azpian, haurrak. Ezin begiratu Palestinakoei ere, inoiz jolasean ikusten ez ditugunei, eta gorroto ditut sare sozialetan sorpresaz harrapa nazaten haien irudi zaurituak jartzen dituztenak. Gaur lau haur hil dituzte; ez, hogeita hamar; ez, ehun eta berrogeita bost; ez, inoiz baino gehiago joan zen udazkenetik; ez da haurrik geratzen Palestinan. Eta segi-gogonek aurrera. Uda honetan gizon zuri oso ezkertiarren bat ikusi dut sare sozialetan zerbait arrazista idazteagatik faxista deituko dioten beldurrez, eta nire herrian “etorkinak kanpora” irakurri dut bi laubururen artean. Eta ez naiz gai horretaz idazteko, oraindik. ●



Hezkuntza

Nafarroan hezkuntza publikoko milaka irakaslek greba egin dute, irailaren 26an. Ratioen jaitsiera, plantillak egonkortu eta gainzama arintzea eskatu dute, besteak beste: “Gobernuari dagokio hezkuntza publikoa lehenestea eta erdigunean jartzea”.

Polizia

Araudi-aldaketa bat egitean, Foruaingoan taser pistolak modu progresiboan hedatzea espero da: oraingo, 150 ematea aurreikusi dute. Beste polizia-ingar batzuetan ere ari dira arma hori zabaltzen, tartean, Nafarroako udaltzaingoan eta Guardia Zibilean.

Euskara

Realeko entrenatzaile Imanol Alguacilek, Nizan eskaintako prentsaurrekoan euskarazko hedabideei euskaraz erantzuten ari zela, hainbat kazetariren kexa entzun behar izan du. Alguacilek euskal hedabideei euskaraz erantzuten segitu du.

Ultraeskuinak lehen aldiz irabazi ditu hauteskundeak Austrian

ERREDAKZIOA

Botoen %28,8 lortu ditu FPÖ alderdi ultranazionalistak, 2019an baino %13 gehiago. ÖVP Alderdi Popularrak botoen %26,3 jaso du eta hirugarren indarra izan da SPÖ alderdi sozialdemokrata, botoen %21,1ekin. Alderdi nagusiek uko egin diote ultraeskuinari gobernatzeko babes emateari, eta adituen ustez, FPÖrik gabeko koalizioa osatzen saiatuko dira.

Lehenengo aldia da Bigarren Mundu Gerraz geroztik ultraeskuinak parlamenturako hauteskundeak irabazten dituela Austrian. EITBk jaso duenez, Herbert Kickl FPÖ alderdiko buruak esan du "boto-emaleek hitz egin dutela", eta emaitza horrek erakusten duela herrialdeak norabide aldaketa nahi duela.

MIGRAZIOA ETA COVID

Alderdi ultraeskuindarrak immigrazioaren aurkako mezuak zabaldu ditu kanpainan zehar, eta kontserbadoreen eta ekologisten Gobernuak COVID-19aren pandemia kontrolatzeko hartutako neurriak kritikatu ditu.

Hauteskudetako bigarren indarra izan da ÖVP Alderdi Popularra eta 2019ko hauteskundeetatik hamaika puntu galdu ditu. Hirugarren tokian gelditu da SPÖ alderdi sozialdemokrata. Laugarren indarra Neos alderdi liberala izan da, botoen %8,8 eskuratuta, eta bosgarren tokian gelditu dira Berdeak, botoen %8,7 lortuta. Azken bi alderdi horiek ere parlamentuan tokia izango dute. Biek Alderdi Popularrarekin batera gobernatu dute orain arte.

Oraindik ez dira jakinak behin betiko emaitzak. Alabaina, ez dirudi ultraeskuinak gobernatuko duenik eta aukera asko ditu kontserbadoreen eta sozialdemokraten arteko koalizioak. ÖVP, SPÖ eta Neos alderdiek hiruko gobernu osatu eta gehiengo justukoa lortuko lukete. ●

ANALISIA

Autobus gidariek (ere) pixa duin egiteko eskubidea dute

MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Emakumezko autobus gidari bat bazter batean pixa edo kaka egiten ikusi zuela-eta, Muskizko herritar batek eginiko salaketa bolo-bolo omen dabil garraio munduko langileen barne-komunikazio kanaletan: "Ez zait normala iruditzen langileek lanorduetan komunera duin joateko aukerarik ez izatea, gainerakoen begirada eta erasoetatik salbu".

Autobus gidariek eurek behin baino gehiagotan salatu dute egoera, eta eskatu dute ibilbide hasiera-amaieran komunak jar ditzatela autobus enpresek –baita ibilbidean zehar ere, bide luzea izanez gero-. "Poltsa batean pixa egin behar izatea, baita hilerokoa dugunean ere, hori da autobus gidari askoren egunerokoa" salatu du txofer batek, aurtan abiatu duen sinadura bilketan. Egokitu izan zait ibilbidetik apur bat desbideratu den txoferrik, pixa egin ahal izateko, eta ezagutzen dut badaezpada botila alboan daramanik ere. Batik bat herri arteko lineetan da arazoa larrien, sarri ez dagoelako komun publikorik eskura. Dena den, komun publiko ugari oso egoera kaskarrean daude, zaintza eta mantentze lanik gabe, zikin, puskatuta... Badira zuzenean funtzionatzen ez duten komunak ere. Eztabaida sakonagoa baita: nahikoa komun publiko –eta baldintza onetan– al dugu gure herri eta hirietan?

Txoferrei ematen zaien beste alternatiba tabernak dira; badira autobus enpresak langileei ibilbidean aurkituko dituzten tabernen zerrenda ematen dietenak, taberna horietako komunak erabili ditzaten. Baina taberna batzuetako komunak giltzaz itxita egon ohi dira, tabernarien borondate onaren menpe zaude, zerbait kontsumitzera behartuta ikus dezakezu zure burua... eta bestela ere, ez dira moduak. Ez da duina horrela ibili behar izatea.

Fokua zabaldua, kamioilariak, kale saltzaileak, taxilariak, banatzaileak, zaborbiltzaileak, atez ateko garbitzaileak, portaletako zaindarien... ere maiz ez dute erraza, barrenak askatzerako orduan. Komunera joatea hain gauza oinarrizko eta garrantzitsua izanik, langile –herritar– guztiek bermatuta al dute hori? Kalean kontainer artean edo izkinen batean pixa egiten amaituz gero, gaizki begiratuko ditu batek baino gehiagok, zikintzat hartuko dituzte, agian grabatu egingo dituzte –Galizian emakumeak txiza egiten grabatu eta irudiak orrialde pornografikoetara igotzen zituzten-. Sarri, ordea, abiapuntua da seinalatu beharko genukeena: ez zaizkie baldintzak jartzen intimitatea, segurtasuna eta higiena bermatuz behar fisiologikoei erantzuteko. ●

6.000

emakume ari dira prostituzioan Hego Euskal Herrian, gehienak hegoamerikarrak eta 18-36 adin tartekoak. "Datuen atzean egoera oso zaugarrian dauden emakumeak daude, giza eta oinarritzko eskubideak urratu zaizkienak".

%1



aberatsenak %95ak baino aberastasun gehiago pilatu du munduan. Oxfam Intermon-ek dio krisi klimatikoari eta pobrezia eta desberdinkeria iraunkorari aurre egiteko ahalegin globalak mehatxupean daudela.

2

urte igaro dira Espainiako Estatuan amiantoaren biktimentzako funtsa sortzeko legea onartu zutela, baina ez araurik ez aurrekonturik ez dago oraindik funtsa sortzeko.

"Denbora asko daramagu tankera honetako egoerekin nazkatuta"

MUSIKAGINTZAKO EMAKUMEAK*

Musikan inoiz ez dela diskriminaziorik egon adierazi du Alex Sardui abeslariak, eta haserre erantzun diote. Barkamena eskatu du Sarduik.

2024-09-23



"GIZA-ESKUBIDEAK ETA DUINTASUNA ZAPALTZEN DUEN INOR EHU-K KONTRATATZEA ONARTEZINA DA"

ERNAI

Alvaro Sanchez Hernandez EHUKo irakasleak irain homofobo eta matxistak, abortuaren aurkakoak, frankistak... kaleratu ditu sare sozialetan, eta unibertsitatetik aterazi dute hainbat ikasle, protestan.

2024-09-28

"Bidezkoa al da otsoa muturreraino babestea ardiak, ahuntzak, txahalak, moxalak aintzat hartu gabe? Otsoak babes berezia behar badu, gure ganaduak zergatik ez?"

ARABAKO NEKAZARIEN ELKARTEA

2024-09-22



Transmisioa



DIANA FRANCO EGUREN

Ordenagailuaren aurrean orduak ematen zituen gazte horietako bat izan nintzen. Internet bidez munduko beste pertsona eta kultura batzuen pentsamendua, musika eta ikus-entzunezkoak aurkitu zituen. Garai haietan ez zen hain ohikoa Internetera konektaturiko gailu bat izatea, eta pantailaren aurrean egoten ginen, batez ere konexioa zaintzen, zeren familiakoren batek telefonoz deitzen bazuen, agur orduetako deskargari abesti berri bat entzuteko. Gainera, gurasoek ordu batzuetan baino ez ziguten konektatzea baimentzen, ostera telefonora ezin zuten inork deitu.

Denbora muga hori izanda, kuadrilarekin hitz egiteko webgunetxo bat sortu nuen: sutan zegoen lapiko baten *gif* baten inguruan pertsona bakoitzak tabloitxo bat zuen eta hor mezuak utzi ahal genizkion elkarri. Beharrak irudimena pizten du. Gazteak gaur antzera dabilta, baina ez dituzte guk genituen muga teknikoak. Alderantziz, sistema osoak pantaila aurreko presentzia sustatzen du. Pertsonon arreta eta jokabideen datuen analisia baitira Internet sostengatzen duten enpresa handien negozio ereduaren oinarria. Belaunaldi bakoitzak bere erronkak ditu; gure gazteen kasuan, zelataritzaren kapitalismoak gure herrien etorkizuna bideratzeko gaitasuna mugatzea. Eta gizartea antolatzen ari da: Altxa Burua taldea kezkatuta dago mugikorren aurrean ematen dugun denborekin, eta Hezkuntza Librezale arduratuta dago gazteak hainbeste erakartzen dituen mugikorretako logika bera ikastetxe askotako gailu eta hodeietan ezarri delako. Pixkanaka, bi mugimenduak gauzak lortzen doaz, hezkuntza komunitatean mezua zabaltzen eta konponbideak bilatzeko bideak ereiten, hala nola mugikorrek ikastetxeetan debekatzeari eta ikasleen eskubide digitalak babesteko dituen hezkuntzarako baliabideak sortzea (Iradi prototipoa).

Internet 1989an sortu zen, gauza asko aldatu ditu oso denbora gutxian, eta eraldatu ditu. Orain dugunari zelan aurre egin ikasten gabilta, bizitza on baterako proposagoa izango den eredu digital bat eraikitze aldera. Ikasketa hau ere gazteei transmititu behar diegu, etorriko denari aurre egiteko gaitasuna eskuratu dezaten. ●



Munduko onenak dira sionistak

AXIER LOPEZ

Parekorik ez dute gizakiak hiltzen. Terrorismoaren teknikak muturrera eraman dituzte, baita berriak asmatu ere. Gainera, Hollywoodeko western film zaharretako protagonistak maskulinoen harropuzkeriarekin justifikatzen dute haien indarkeria.

"Libanoko herriarentzat mezu bat dut: Israelgo gerra ez da zuen aurkakoa, Hezbollahen aurkakoa baizik", esan zuen Netanyahu duela aste bete pasatxo. Ordu batzuk geroago, Libano bonbardatzen hasi ziren masiboki. Egun bakar batean 500 pertsona baino gehiago hil zituzten. Azken bi asteetan, mila lagun inguru erail dituzte eta milioi bat desplazatu eragin.

Hori gertatzen ari da kolokan da goen herrialde batean, krisi ekonomiko eta politiko bete-betean egon dena azken urteotan. Gainera, biztanle bakoitzeko errefuxiatu gehien duen herrialdea da munduan: 1,5 milioi siriar eta 250.000 palestinar baino gehiago bizi dira Libanon.

Amaierarik gabeko erasoaldiak agerian utzi ditu Israelen inpunitea eta harrokeria, inoiz baino gordinago erakutsi ditu. Ostegunean, AEBek eta Frantziak su-etena proposatu zuten Libanorako, baina ikasleak segituan utzi zuen agerian bere irakasle eta babeslea, bere etxean bertan: hurrengo egunean New Yorken beste triskantza bat agindu zuen Netanyahu, NBeko Batzar Nagusira sartu aitzin. Bonbardaketa horietan Hezbollahko buruzagia hil zuten, gerora, Joe Biden "demokratik" publikoki txalotu zituen hilketa horiek: "Nasrallah

hiltzea justizia ekinga bat da". Egunotan hil dituzten mila libanoarrentzat ez zuen hitzik izan. Ostegunean ere jakin zen Israelen AEBetako beste laguntza militar pakete bat lortu duela, 8.700 milioi dolarrekoa.

NBeko batzarretik asko aretotik atera zen Israelgo genoziden burua atrilera hurbildu zenean, baina haien artean ez zegoen Mendebaldeko agintaririk -Espainiako eta Frantziako ordezkariak barne-. Netanyahu paparra puztuta hitz egin zuen planetaren aurrean, nahi zuen oro hiltzen jarraituko zuela berresteko. Buruzagi sionistak munduko herrialde ugari mehatxu egiteaz gain, diskurtoa baliatu zuen NBeri berari ere behin eta berriz "antisemita" izatea leporatzeko.

Hezbollahko eta Hamaseko komandante nagusien hilketak eta azpiegituren suntsipena lorpen esanguratsuak dira sionisten interesentzat, baina garaipen taktikoetatik haratago, epe luzerako panorama estrategikoak iluna izaten jarraitzen du. Israel ez da bake edo egonkortasun iraunkorra bermatzeko gai den aktorea. Bere estrategia indar militarrean oinarritzen da ia soilik, Libanon eta Gazan zibilen baja kopuru erraldoia eraginez, Hezbollah eta Hamasekiko herritarren babesa hausteko ahaleginean. Hori ez dute lortu, noski, eta litekeena da kontrako eragina izatea. Hezbollah, Hamas eta gainerako fakzio armatu eta politikoek erresistentzia jarraitzen dute, eta Erresistentziaren Ardatzak bere horretan dirau. ●

"Beti zoru etikoa ahoan, baina ez dakit hori non ote dagoen"

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Iragan asteazkenean Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluko bost kide independenteak hautatu zituzten alderdiek Gasteizko Legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordean. EAJren eta PSEren abstentzioek Pilar Garaialde Salsamendi zuzendaritzatik kanpo utzi zuten. Bera zen hautagaien artean estatuaren biktima bakarra; aldiz, ETaren bi biktimak EAJ, PSE zein EH Bilduren aldeko bozka jaso zuten. EH Bilduk "oso larri" jo du "estatuaren biktimak berriz ere baztertea". EAJk eta PSEk EH Bilduri leporatu diote gertatutakoaren ardura. ARGIA Garaialderekin mintzatu da.

Asteazkenean zure hautagaitza atzera bota zuten. Nola sentitu zinen?

Ez da gai pertsonala, ni ez izendatzea ordezkatzeko dudana kanpoan uztea da: estatuaren biktimak. Ez dut pertsonalki hartu, baina noski, diskriminazio eta tratu txar honek min egiten du, dudarik gabe.

María Jauregi eta Josu Elespe ETaren biktimak bai egongo direla Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluan.

Bai, ETaren biktimak bi egongo dira, egon behar dute, nola ez. Baina estatuaren biktimen ordezkari bat ere egon beharko luke, benetan bizikidetzan alde egin nahi bada, benetan gutxieneko justizia baten alde egin nahi bada, benetan aitortza minimo bat egongo bada, eta benetan ez errepikatzeko bermeak ezarri nahi badira.

Estatu terrorismoaren biktima gisa proposatu zaitu EH Bilduk Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseilurako. Zergatik?

Aita taxilaria zen, 60 urte bete zituen gauean hil zuten. Trenbide bazterrean agertu zen bere gorpua, hurrengo eguerdian. Guk ez genuen ezer jakin hasiera batean. Amak esan zuen, "honek istripuren bat izan du, bidaia batengatik balitz abisatuko luke". Ospitaletara deitu eta berririk ez. Ahizpa eta osaba bana Guardia Zibilaren kuartelera jo zuten, esan zieten gorpua bat zegoela gorputegian eta begiratzeko nahi bazuten. Horrela aurkitu genuen.

Ondoren Triple Ak aldarrikatu zuen. Terrorismo zantzuak egonik ere kasua ez zuten Auzitegi Nazionalera pasa, Toloako epaitegian geratu zen, eta hilabete baten bueltan itxi zuten, ezer ikertu gabe.

Egiari Zor oso kritiko agertu da gertatutakoarekin. Egun horietako bi gertakari alderatu ditu: batetik, María Jesús San José Justizia eta Gizarte Eskubideetako sailburuak iragarri zuten, zure hautagaitza atzera bota zuten batzordean bertan, espazio publikoan presoan aldeko mezuak zigortzeko lege erreforma bat bultzatzeko asmoa; bestetik, Guardia Zibilak erakusketak antolatzen ditu espazio publikoan, bertara haurrak gonbidatuz espresuki.

Ni nire aitaren alaba naiz, Triple Ak hil zuen Paulo Garaialderen alaba, baina banaiz ere Guardia Zibilak torturatutako pertsona bat. 1980an atxilotu eta torturatu ninduen Guardia Zibilak. San Josék esan zuen ez dela etikoki onargarria biktimarioen irudiak espazio publikoan egotea. Zenbat exekuzio estrajudizial burutu ditu Guardia zibilak? Zenbat pertsona torturatu? Inongo biktimariok ezin adu espazio publikoan egon, zer egiten dugu Guardia Zibilarekin?

Memoria eta bizikidetzatza gatazka iturri, berriz ere.

Gasteizko Legebiltzarreko azken urteotako hainbat ekimen ikusita ematen zuten bizikidetzatza eta zoru demokratiko bat lantzeko urratsak ematen ari zirela, ez nahi bezain agudo, baina bide bat zegoela. Noraino egin behar dugu orain atzera? Ez genuen uzte honetara helduko ginenik, zintzoki.

Gogorak zer lan egin beharko luke, zure ustetan?

Gogoraren lan bat izan behar du memoria berreskuratu eta lantzea. Baina horretarako jarrera politiko jakin bat egon behar du: aitortzea hemen asko sufritu dela, biktimak egon direla, eta horien artean estatuaren biktimak ere. Memoria-aren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua du izen osoa Gogorak, eta giza eskubideak eta bizikidetzatza jokoan daude memoria lantzerakoan gertatu den guztia aitortzen ez bada, batzuk diskriminatu egiten bagaituzte.

Baina zer gertatzen da? Zuk onartzen baduzu estatuak terrorismoa praktikatu duela, biktimario batzuk daude, haiek egindakoa aitortu beharko lukete, eta berdin politikoek beren erantzukizuna. ●



ETA KLIMAREN KONPONBIDEA BASO ETA PADURETAN ERE BALEGO?

Urriaren amaieran Calin (Kolonbia) egingo den Biodibertsitateari buruzko COP16 biltzarra mugarri izan daiteke, lehen aldiz ekosistemen galera jarri nahi delako CO2 isurien eta berotze globalaren arazoan mailan. Baina noiz utzi zion horrela izateari?

 URKO APAOLAZA AVILA

Granadako Alpujarra garaiko Capileira herria, Sierra Nevadatik zintzilik eta Mediterraneoari begira. "Lehen euri gehiago egiten zuen, orain *Río Chico*-k apenas darama urrik", diote zaharrenek.

Baserritarrari menditik datorkion urari ere kontagailuak jartzen hasiko omen dira Gipuzkoan, hala esan digute eta ez gaitu harritu. Ufaletan ez-kailuak agertzen dira, dio esaerak. Bizi garen garai antropogenikootan ura gero eta kontrolagaitzago zaigu, begira bestela Europa erdialdean *Boris* ekaitzarekin gertaturikoa: ibili bideak lehertu ditu eta prezipitazio “ezohikoak” utzi. Gutxienez 23 dira hildakoak. Askoz isilago pasa zaizkigu Afrika mendebaldean irailean izandako euriteak, Nigerian, Liberian zein Malin uholdeek milatik gora hildako eta milioika desplazatu eragin dituzten arren.

Orain euri jasak, gero sikateak. Eguraldia aspaldi ari da alerta jotzen eta gero eta gehiago dira uraren zikloan ikusten ari garen aldaketok bioaniztasun galerarekin lotzen dituztenak. Hain agerikoa da lotura, COP16 biltzarreko antolatzaileek eztabaidaren erdigunean jarri dutela gaia.

COP16 ETA TXANPONAREN BESTE ALDEA

“Gizateriak ulertu behar du mugimendu bikoitz bat. Lehenengoa deskarbonizatzea da, eta trantsizio energetiko justua lortzea. Txanponaren beste alde da natura berrezarri behar dugula eta honek Lurrarekiko duen gaitasuna berreskuratu, klima benetan egonkortu dezagun. Kontzientzia eta inbertsio politiko asko dago klimarekin, baina ez gara txanponaren beste alde hori ikusten ari, eta arriskutsua da. Arriskutsua gizateriarantz”. Hala hitz egin du Kolonbiako Ingurumen ministro Susana Muhamadek biltzarraren aurkezpenean.

Aitona palestinarra zuen Muhamadek, baina bera Bogotan jaio zen duela 47 urte. Ingurumen gaitan aditua eta aritua –Shell konpainiarentzat aholkulari ibili zen, frackingarekin nazkatuta utzi egin zuen arte–, hiri hartako Ingurumen idazkari izan zen *Basura Cero* (Zero Zabor) sistema ezarri zuten garaian. Gustavo Petro zegoen orduan alkate. 2022az geroztik Petroren Kolonbiako gobernu ezkertiarrean dabil Muhammad, eta frackingaren kontrako eta Amazoniako basoberritzeen aldeko legeak bultzatu ditu. Bera izango da COP16 biltzarraren presidentea.

Urriaren 21etik azaroaren 1era egingo da Nazio Batuen Erakundearen Biodibertsitateari buruzko COP16 biltzarra, Calin, Kolonbiako hirugarren hiri handienean. 192 herrialdetako 12.000 funtzionario eta aditu bilduko dira, “Egizu bakea naturarekin” esloganpean.

Bi urtez behin antolatzen den biltzar horrek agian ez du klimari buruzko COP biltzarraren sona bera izango, baina erronka anbiziotsuak ezarri ohi ditu. Montrealen egin zen azkenekoan, esaterako, 2030 urterako planetaren azalaren %30 babesteko helburua jarri zuten, 30x30 izeneko adierazpenean. Ekologisten opinioa da sistemak bere horretan jarraitzeko akordio bat baino ez zen izan hura; herri indigenek berriz “Kristobal Kolonez geroztik izandako lur lapurreta handiena” zela salatu zuten.

Baina aurtengo biltzarra desberdina da, apustu handiak egin baino, ikuspegi aldaketa eragin nahi duelako: “Caliko COP16ren asmo nagusietako bat da bioaniztasunaren marko globala bihurtzea agenda klimatikoa bezain politikoki garrantzitsua”, ziurtatu zuen Muhamadek aurkezpenean. *The Guardian*-eko eta munduko beste hedabide erreferentzial batzuetako orrialdeetara iritsi ziren hitzok, baita Rob Lewis aktibista eta poetaren belarrietara ere.

“Gizateriak ulertu behar du mugimendu bikoitz bat. Lehenengoa deskarbonizatzea da, eta trantsizio energetiko justua lortzea. Txanponaren beste alde da natura berrezarri behar dugula”

Susana Muhamad

Lewisek urteak daramatza klima “makina bat baino gehiago” dela aldarrikatzen eta naturaz idazten. *The Climate According to Life* (Klima, bizitzaren arabera) webgunea dauka horretarako: “[Muhamadek] zorrotz hitz egin du klimaren izaera ‘bikoitzaren’ inguruan –dio idazleak–. Espero dut hedabideek pertsona honi kasu egitea, eta modu horretan txanpon klimatikoaren bi aldeak

lantzea. Niretzat, hori sekulako aurrerapausoa da klimaren arazoez eztabaidatzeko unean”.

Naturaren izaera “bikoitza” aipatzean, teoriko batzuek aspaldian dabilen ideia bat ulertu behar dugu: klima larrialdia ez dutela soilik karbono isuriek eta berotze globalak ekarri, bioaniztasun galerak eta uraren zikloak ere garrantzia handia dutela –horri buruz ARGIAko irakurleak gogoratuko du urtarrean argitaratu genuen *Larrin* gehigarria (292. zk.)–. Teoriko horien artean Millán Millán fisikari eta ingeniaria du erreferentzia-tzat Lewisek, pasa den urtarrean hil berria. Bere historia kontatzen hainbat artikulua idatzi ditu, “Millán Millán eta desagerturiko ekaitz mediterraneoan misterioa” izenburupean.

AITAREKIN EKAITZ-EHIZAN GRANADAKO MENDIETAN


Meteorologo ospetsu izan aurretik, ume garaian, aitari eper ehizan laguntzen zion Millán Millán Muñozek (Granada, 1941 – Valentzia, 2024), Andaluziako mendietan barrena. Eta han, maki deituriko sasi lehorren artean zebiltzala, goizean lainoak sortzen ziren tokiari erreparatzen zioten, ekaitzak arratsaldean non botako zuen igarri eta etxerako bide zuzena hartzeko.

Txikitako esperientzia hori atorran sartuta joan zen Millán Torontoko Unibertsitatean, Fisika Atmosferikoa ikastera. 1971n liburu harrigarri bat iritsi zitzaion eskutara, bere irakasle izandako Ted Munn meteorologoen bidez: *Inadvertent Climate Modification* (Oharkabeko Klima Aldaketa). Gizakiak kliman duen eraginari buruzko ikerketa bat zen, Massachusettseko Teknologia Institutu prestigiosuak argitaratua. Bertan esaten zen negutegi efektuko gasek ez ezik, lurraren erabilera desegokiak ere klima alda zezakeela.


Are gehiago, liburuak zioen negutegi efektuak erritimo motelagoa duen bitartean, lurreko natur suntsiketak berehalako eragina duela, ziklo hidrolotikoaren haustura egun batetik bestera sumatzen delako. Klima aldaketaren “bi hankako” ikuspegi hori edukitzea –atmosfera (karbonoa) zein lurrekoa (ura)– ohikoa zen garai haietako zientzialarien artean, eta Millán ere horretan oinarritu zen Europako Batzordeko funtzionarioek eskatu ziotenean argitu zezala ea zergatik ari ziren desagertzen udako ekaitzak Mediterraneoko arroan.

LEHEN


Ekaitza irekita: ZIRKULAZIOA

**ORAIN**

Ekaitza itxita: BIRZIRKULAZIOA

**GERO**

Ekaitza irekita: ZIRKULAZIOA

**MEDITERRANEOKO UDAKO EKAITZEN MISTERIOA**

Esan eta egin. Bera eta bere ikertaldea landa-lanean aritu ziren urte luzez Espainiako hegoaldeko Mediterraneoan. Globo aerostatikoak, neurgailuak eta 50 dorre meteorologiko erabili zituzten horretarako eta aitona-amonek esaten zutena ere "datu kritiko" bezala hartzen zuten kontuan: nork jakingo zuen haiek baino hobe eguraldiaren berri? *Cierzo a las siete, solano a las diez, agua a a las tres* (Ziertzoa zazpitan, ekia hamarretan, ura hiruetan), esamoldea entzun zioten behin agure bati.

Millán ondorio batera iritsi zen: lainoek behar duten ura, itsasotik ez ezik, kostaldeko padura eta basoetatik harrapatzen dute. "Urak du sortzen ura, lurra du umetoki eta begetazioa emagin...", esaten zuen granadarrak, poeta senaren erakusle. Arazoa da

Millán ondorio batera iritsi zen: lainoek lehertzeko behar duten ura, itsasotik ez ezik, kostaldeko padura eta basoetatik harrapatzen dute. Arazoa zera da, Mediterraneoko kostaldea guztiz soilduta eta idortuta dagoela turismoaren *boom*-az geroztik

PAISAIA BIZI INTELIGENTEAK

Urtetako lanaren ondorioak azaltzeko grafiko bat erabiltzen zuen Millán Millánek.

Lehen, ekaitzak lehertzeko lainoek 21 gramo ur eramaten zuten metro kuboko. Itsasoko haizeek 14 gramo ekartzen bazuten, nondik ateratzen ziren gainerako 7 gramoak? Kostaldean zeuden padura eta basoetatik.

Orain, luraren suntsiketaren ondorioz ur kopurua ez da 20 gramora iristen, ekaitzak ez du lehertzeko eta ur-lurrunduak "birzirkulatu" egiten du geruza altuagoetan, halako batean urrunago eta indarrez botatzeko.

Gero, baso zein padurak berreskuratu eta hiri berdeagoak sortuta, aurreko egoerara itzultzea zen Millánen proposamena.

Lurra osasuntsu dagoenean, komunitate mikrobianoak hezetasun gehiago pilotzen du bertan. Orduan, begetaziotik ur-lurrunaz gain biota mikroskopikoak aieratzen dira, eta horrek laguntzen du kondentsazioa azkartzen, zeruak euria itzuli dezan lurrrera.

Mediterraneoko kostaldea basoz guztiz soilduta eta idortuta dagoela turismoaren *boom*-az geroztik. Ekaitzek ez dute mendian lehertzeko eta ura geruza atmosferiko zabalago batean pilotzen da, urrunagoko beste toki eta urte sasoi batean biolentzia izugarri kolapsatu arte... esaterako Europa erdialdean. Ezaguna al zaizu kontu hau?

Baina 1990eko hamarkadan –Mediterraneoko Ingurumen Ikerketa Zentroko zuzendari zela– ikerketaren emaitzak zabaltzen hasi orduko, hotsasuna besterik ez zuen aurkitu. Millánek zioen bere teoria "deserosoa" zela komunitate zientifikoarentzat, jadanik ez zelako "bihankako" ikuspegia kontuan hartzen. Bi hamarkada lehenago ez bezala, luraren "hanka" bazterturik zegoen. Zer pasa zen bitarte horretan?

NOLA UTZI ZUTEN BIOANIZTASUNA EKUAZOTIK KANPO?

Rob Lewisen ustetan 1979an gertatu zen dibortzioa. Urte hartan AEBetako Gobernuak CO2 isuriaren inguruko txostena eskatu zion Jules Charney matematikariari. Honek, aditu talde bat bildu zuen Woods Hole lurmuturrean (Massachusetts, AEB) eta simulazio askoren ondoren egun indarrean den modelo matematikoa sortu zuten eguratsari buruzko iragarpenak egiteko. Hala, ebatzi zuten CO2 isuriak bikoiztuz gero tenperatura +3°C^o igoko zela mundu osoan.

"Bonbazo bat izan zen –dio Lewisek–. Hedabideek bazuten arretea deitzen zuen titular bat, petroliogileen interesak alde



Ezkerrean, Millán Millán zientzialari granadarra, besteak beste aireportuetako metal detektagailuen asmatzailea. Ekosistemen galerak ere klima aldatzen duela defendatu zuen. Eskuinean, Kolonbiako Ingurumen ministro Susana Muhamad biodibertsitatearen aldeko manifestua sinatzen. Urriari Calin egingo den COP16 biltzarrean gaia "eztabaida politikoaren erdigunean" jarri nahi dute.

batean eta ekologistak bestean lerrokatuta zeudela". Hortik aurrera, iritzia publikoan zabaldu zen karbono isuriak zirela aldaketa klimatikoaren arrazoi berdadero bakarra eta IPCC Gobernuarteko Adituen Taldeak ere horixe bultzatu du harrezkeroztik. Gainera, kontakizuna ondo zetorkion klase politikoari: errazagoa zitzaien "iragarri" zitekeen karbonoaren zikloa bezalako epe luzeko fenomeno global baten kontra jartzea, askoz konplexuagoa –eta eraikuntza zein turismo indusrirentzat kaltegarriagoa– den uraren zikloa azaltzea baino.

"Garbi gera dadin, honek ez du esan nahi ez ditugunik karbono isuriak drastikoki jaitsi behar. Baina CO2aren krisia kokatzen du beste krisi baten testuinguruan: biosferaren giza suntsipena. Bi hankak ez dira kontrajarriak, gorputz bati lotuta daude, Lurrari lotuta", amaitzen du Lewisek bere artikulua.

1979an Woods Holen bilduta zeuden adituek ebatzi zuten CO2 isuriak bikoiztuz gero temperatura +3° igoko zela: "Bonbazo bat izan zen, hedabideek bazuten arreta deitzen zuen titularra"

URAREN ZIKLO TXIKIA BERRESKURATZEN

Millán Millánek esaten zuen "ekaitzak landatu" behar ditugula. Azken hitzaldietako bat Valentziako Zientziaren Etxean eman zuen, hil baino aste batzuk lehenago: "Jendea ari da gaixotasuna tratatu nahian. Nik Covida pasa dut eta badakit zaila dela, baina galdera da, zergatik ez duzue arazoa aurretik konpontzen? Aldaketa klimatikoaren arazoa ez da CO2a, arazoetako bat besterik ez da hori... Klima aldaketaren arazoa ur-lurruna da. Orain ikusten ari zareten bero hau guztia ez da CO2arena, ur-lurrurak sorturikoa baizik, zioen fisikariak.

Hitzaldi horretan Millánek gogorazi zuen Txinako Loes desertuan uraren ziklo txikia berreskuratu dutela basoberritzeen bidez. Honatx bere mezua entzuten ari zen publikoari: "Ura jadanik ez dago hor, baina berriz jarri daiteke". COP16ra doazen agintariek kasu egingo al diote? ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



VUARNET

Montse Borda

PINTURAREN ARTISAUA KOBAZULOAN



25 URTEZ ASTEBURURO FABRIKAN ARI NAIZ, BAINA HORREK ASTEGUNETAN TAILERREAN EGOTEA AHALBIDETZEN DIT



Iruñeko Arrosadia auzotik pasatzen naizen aldiro sartzen dut burua Santa Marta kaleko tailerrean. Hor da Montse normalean: potetxoan pintzela sartu, trapu batean ia pintura dena kendu eta pintzela mihisean igurzten, begiztan. Bere espazio-denboran sartu naiz gaur eta solasaldiaren aurretiko zigarroa erretzen ari dela, lantzen ari den koadroari begira esan dit: “Hamabost urte paretan bati begira, erotuta behar da gero...”.

 AMETS ARANGUREN  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Nola heldu zara hona?

Oso gazte nintzelarik hasi nintzen idazten. Nik neure buruarekin eta jendartearekin nituen arazoak topatu eta horiek transkribatzen ibili nintzen urte luzez. Kontua da 20-21 urte nituenean Javier Jiménez Monreal izeneko pintore iruindar batek [Madrilgo] Prado museora eraman ninduela. Eta aipatu nahi dut Javier Jiménez Monreal, izugarritzko pintorea izan arren ez baita errekonozitua izan hemen, etxegabetuetakoa izan zen

eta kalean bizi zen. Pradora sartu eta Velázquez, Goya, Rembrandt... ikusi nituenean, ez nion arreta berezirik jarri bakoitzaren obrari, baina konturatu nintzen bakoitzak nahi zuena egiten zuela. Velázquezek Velázquezek bezala pintatzen zuen, Goyak Goyak bezala, Grekok Grekok bezala... Hor ikusi nuen nire aukera eta pentsatu nuen “nik eginen dudana ere nahi dudana izanen da, hemen bakoitza norbera da, beraz, ni neuz izan naiteke”.

Ostalaritzan egiten nuen lan orduan, 23 urte nituen eta gurasoak hilik. Madriletik bueltan pentsatu nuen ezin nuela bizi guztia horrela eman, beraz, Iruñeko Arte eta Diseinu Eskolan hasi nintzen ikasten. Oso irakasle onekin egin nuen topo han: Isabel Baquedano, Salvador Beunza, Juan José Aquerreta... Orduan baieztatu nuen nik tailer batean egon eta nire bizimodua hori izatea nahi nuela. Orduetik beti izan dut tailerra. Bertan hartzen dut atsedean,



Montse Borda Olague

ATARRABIA (NAFARROA), 1961



Frankismo betean jaio zen, 3.000 biztanleko Atarrabian (Nafarroa). Inguru hurbilean ez zuen artearekin loturiko erreferenterik, baina oso gaztetatik hasi zen idazten, musika jotzen... 23 urte eta guraso biak hilik zituela erabaki zuen Iruñeko Arte eta Diseinu Eskolan ikasten hastea, ez zuen bizitza guztia ostalaritzan lanean eman nahi. Pinturari denbora eskaini ahal izateko, nominapean lanean ematen ditu asteburuak, fabrika bat garbitzen.

egiten dut lan, ahalegintzen naiz eta sufritzen dut. Nire kobazuloa da eta kobazulo hori behar dut.

Hurrengo 20 urteak pasa nituen klaseak ematen, baina nire alaba Haizegoa jaiotzeak behartu ninduen etxean gehiago egotera, nire bikotekidearen laneko ordutegiak konplikatua zirelako. Fabrikan hasi nintzen orduan lanean asteburuetan, gaur arte. 25 urte daramatzat asteburu fabrikan lanean, baina horrek astelehenetik ostiralera tailerrean egotea ahalbidetzen dit.

Zergatik pintatzen duzu?

Nik beti esaten dut beharragatik pintatzen dudala. Eta esanen nuke egiten ahal nuen edozein arte ere, izan dantza, izan musika... beharretik egiten nukeela. Dugun mundu honek ez du gehiagorako ematen: lanera joan behar duzu, izan beharreko harremanak ere araututa daude... Hori gelditzeko beharra da. Jendartetik ateratzeko beharretik pintatzen dut.

Tailer honetatik kanpoko eta hemen barruko denborak ez dira berberak. Zein harreman duzu denborarekin?

Ez, ez dira berberak, inondik inora. Eta denbora inportantea da, baina nik espazio-denbora deitzen diot. Zeren eta ni jaitsi naiteke hamar minutuz hona [tailerrera] eta bi pintzelada eman koardro bati. Hori denbora da, baina ez espazio-denbora. Espazio-denbora da zu hona zatozela eta agian ez zarela pintatzen ari, beharbada obrari begira zaude edo zerbait irakurtzen. 4-5 orduko tartea izateak ahalbidetzen dizu hona heldu eta gauzak soseguz egin ahal izatea.

Hemen mundua gelditzen da eta ez naiz nire burua ez den beste ezerekin ez beste inoren aurka borrokatu behar. Mihise zuria besterik ez dut hemen. Hori eta helburu bat. Teknika lagun, oso-oso poliki joan behar dut, hemen barruan jendartearen denborek ez dute balio.

Ezer gutxi dakit nik pinturaz, baina pintzel lehorraren teknika zuri besterik ez dizut entzun.

Existitzen den teknika bat da, baina nik niretzat moldatu dut pixka bat. José Miguel Corralen ikastaro batera joateko zortea izan nuen eta han ikatziziriarekin lan egiten irakatsi zigun, horrekin bakarrik. Baina nik tailerrera heldu eta, ez galdetu zergatik, pentsa-

tu nuen ikatz hori linazi-olioarekin nahastuz gero eta pintzel lehorraren teknikarekin lanean jartzen banintzen zerbait egin nezakeela.

Hasi nintzen erretratu txikiak egiten: nire alabaren lagunak, ikastola garaikoak... eta oparitzen joaten nintzen. Areago, hasieran ikatz hauts hutsarekin egiten nituen. Gerora otu zitzaidan olio sartzeari. Eta pintzel lehorraren teknika, olioaren kontrara, ez da pinturarekin zuzenean pintatzea: pintura hartu, trapu batean igurtzi eta pintzela ia lehor dagoela berriz koadroan igurtzean datza. Esan dezakegu hartzen dena ez dela pintura, baizik eta pigmentu pixka bat besterik ez. Kapa bat agertzen da orduan mihisean eta berriz igurtziz gero, kapa ilunago bat. Geruza kantitatearen arabera da koadroan ikusten den iluntasun maila. Ni 80 kapa ematera ere heldu izan naiz.

Ikatzaz aparte, koipea ere erabili izan duzu.

Bai. Lehen aipatu dizudan bezala, nik hemen ematen ditut astegunak, baina 25 urte daramatzat asteburu fabrika bat garbitzen. Dagoeneko leku ezaguna zen fabrika niretzat eta lokalizatuta nituen fabrikan ekoizten ziren piezetako batzuk, gustuko nituenak. Behin kaxa batzuk topatu eta konturatu nintzen begien parean nuela musa. Kaxa barrukoa pieza errepikatu bat zen eta horrek erritimo eta armonia bat sortzen zituen. Ikus ez nintzaten, kaxa horietako bat hartu eta garbiketa karrotxoarekin joan nintzen komunera. Argazki on batekin aski nuen.

Jakina, ideia zen makinak garbitzean ateratzen den koipeaz beraz koadroak pintatzea. Koipea jaso, iragazi eta pintzel lehorrarekin lantzen ditudanez, kantitate gutxi da eta ez da kutsagarria. Gero grabatu baten gisan geratzen da. Eta horrela lortzen dut hondakina arte obra bilakatzea.

11 koadroko seriea egin nahi nuen eta fabrikari berari egin nion proiektu proposamena. Haiek baietz. Eta grazioso da, gaur egun garbitzen segitzen dudak korridore horretan bertan baitaude eskegita nire koadroak. Ni neu naiz nire koadroen kristalak garbitzen dituenak. Hiru urteren buruan erretiroa hartuko dut fabrikan eta pertsonalki inportantea da niretzat pentsatzea garbitzen segitu ez arren nire koadroek hor segituko dutela.



Fabrikan izan ordez beste nonbaiten egonen bazina lanean, uste duzu berdin topatuko zenituzkeela tailerrera ekartzeko ideiak?

Bai, pasa izan zait. Uda honetan Barañaingo igerilekuan egon naiz eta ordutik nahiko presente dudana bai da haurrena. Beti egoten naiz lotura hori bilatzen: zerk liluraten nau nagoen lekutik? Izan daitezke zuhaitzetako hostoak edo haurren aurpegiak. Beti nabil edertasunaren bilaketan. Mundu hau hain da nazkagarria, denok gara hain geurekoiak eta hain zekenak, nire burua horretaz guztiaz babesteko modu bakarra zaidala edertasunean, orekan, erritmoan gordetzea.

Esaten zenidan lehen, ez zaitugula paisaiak edo izadi hilak pintatzen topatuko.

Egin nuen lehenengo serietik hasi nintzen gai politikoak esplizitatzen: harrian

bertan hasi nintzen emakumezkoak lan-tzen. Bigarren seriea ere emakumeen ingurukoa izan zen. Honetan begiradetan jarri nuen fokua, erretratuan. Denak ziren eta dira inspiratzaileak niretzat: gazteak, helduak... Begirada batek zerbait esaten zidan momentuan erabakitzen nuen pintatu behar nuela.

Beste pertsonaia garrantzitsuenetako bat izan da Claude Cahun. Pintzel lehorreko ikastaro bat emateko eskatu zidaten behin Lizarran eta esker on gisa *Mujeres artistas: siglo XIX y siglo XX* izeneko liburua oparitu zidaten. Liburua begiratzen hasi nintzelarik dena zen normala niretzat, emakumezko hori agertu zen arte. "Baina zer da hau?", pentsatu nuen hasieratik. Seduzitu ninduen eta jakin-min handia sorrarazi zidan. Pentsatzen nuen egungo pertsona bat izanen zela, baina bere bizitza irakurtzen hasi eta 1894an jaioa zela

ikusi nuelarik flipatu nuen. Orainetik eta hemendik begiratuta arrunta iruditu dakigukeen bizi bat da, baina bera dela ehun urte ari zen bere burua munduaren aurrean ez-bitar gisa aurkezten, besteak beste.

Bere ahizpaordearekin bizi izan zen, maitaleak izan ziren biak oso gaztetatik. Atera egiten zen hain barneratuak ditugun paperetatik: zu emakumezkoa zara, zu gizonezkoa... Berarendako beti izan zen debate bat bere pertsonaia bera, uste dut hori dela bere argazkiekin esan nahi diguna. Klase altuko familia batekoa zen, hori ere esan beharra dago.

Hori dena irakurri ondoren, pentsatzea ni bizi izan naizela mezan, arrosarioan, garai hartako eskola frankista nazkagarri horietan... Dena araututa: obedientea izan, etxeko andre perfektua, ezkondu eta seme-alabak izan... Claude Cahun bezalako jendea existitu zela jakin nuenean, pentsatu nuen: "Baina zein engainutan bizi izan gara?".

Enkarguz egiten duzu lan beti?

Ez beti. Adibidez, emakumezkoen begiraden seriea, lehen aipatu dizudana, nahi nuelako egin nuen. Mugitzen ninduelako. Banekien pare bat urte behariko nituela, baina proiektuan sinisten nuen eta bi gauza besterik ez nituen behar: begiradak eta espazio-denbora. Batzuetan nik topatzen nituen begirada horiek, beste batzuetan haiek ni. Claude Cahun da pintatu nuen emakumezko horietako bat eta erakusketa ikusgai egon zen momentuan agertu zen Clauderen koadroa begiz jo eta erosteko prest zegoen pertsona bat. Hortik bi urtetara tailerrera etorri eta haren hamabost erretratu nahi zituela esan zidan. Eta ni pozarren. Pertsonaia honekin jada harremanetan nengoelako, ezagutzen nuelako bere bizitza, pertsonalki ezagutuko banu bezala ia.

bardoak
2024
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Irailaren 13tik urriaren 26ra

Atarrabia · Erratzu (Baztan) · Erronkari · Etxauri · Eugi · Gares · Irunberri · Irurtzun · Iruñea · Leitza · Lekaroz (Baztan) · Lekunberri · Lesaka · Lizarra · Olazti (Sakana) · Sunbilla (Malerreka) · Tafalla · Tuteria

Antolatzailea:  Laguntzailea: 

www.bertsozale.eus



Uko egin al diozu inoiz proposatu dizuten enkarguren bati?

Bai. Gogoan dut paisaia proiektu bat proposatu zidatela behin. Noizbehinka pasa izan da, baina nahi nuena egin da atera naiz aurrera ekonomikoki eta pintatzeagatik pintatzeari ezetz esatea energia aurrezte da. Erretratuan ibiltzen naiz batez ere. Kolaborazioak egin izan ditut, baina saiatzen naiz nigandik ateratzen diren gaietan lan egiten.

Gustatuko litzazuke fabrikaren beharrik ez izatea?

Bai. Mundu artistikoan normalean ez dago hilabeteko nominarik. Iruñea batean koadroak erosteko dagoen interesa hutsaren hurrengoa da. Nik orain zortea izan dudalako eta topatu dudalako hazitxo lasto artean, baina, hala ere, honetaz bizitzen saiatzea ia ezinezkoa da. Egin dezakezu Iosu Zapata batek egiten duena: eskaparateak pintatu, Eguberri-

tako zuhaitzetako izarrak egin... Baina nik eredu hau hautatu nuen: nomina txiki bat fabrikari erretreta minimoa bermatu ahal izateko.

Asko gustatuko litzaidake honetaz bakarrik bizitzea, betiere maite ditudan gauzak egiten izanen balitz. Zure lana gustatzeak ez du esan nahi lana gogorra ez denik, kasu, hau oso gogorra da. Eta ematen du, egiten gozatzen baduzu ezin zaio la lan deitu. Behin, garbitzen nuen psikiatriko batean, bertako psikiatra batek pintatzen aritzen nintzela jakin zuenean doako tailer batzuk emanen ote nituen galdetu zidan. Edukazioz erantzun nion, baina esan nion nik beste edonork bezala erosi behar ditudala kulerokak eta jatekoa.

Esanen zenuke zure etxea baino etxeago direla metro karratu hauek?

Alde Zaharrera noanean, beti ateratzen naiz hemendik. Lanetik natorrenean lehenengo hona nator eta gero etxera. Esan nahi dut, erreferentzia beti da hau. Nire kobazuloa da, nire etxea, bai. Etxea bada etxe, baina ni hemen naiz gehiago. Hau da ni nagoen lekua. Etxean daude nire alaba, nire bikotekidea edo garbigailua, zartaginak... Hemen ez, hemen ni bakarrik.

Espazio honek niretzat, gainera, bizitza osoan zehar egindako lanak gordetzen ditu. Eta pasatzen zait aspaldiko lan bati begiratzeko diodanean, 40 urte pasa badira ere, segitzen dudala harekin identifikatuta sentitzen eta garaian nuen gogo eta ilusioa ekartzen dizkidala burura. Ni hartaz baino, nire obra da nitaz mintzo dena. Nire obra da ni nor naizen esaten didana. Nik nahi izan dudalako isiltasun hori edo pertsonaia hori pintatu eta ez beste bat.

Zure inguru soziala ere artearen bueltan ibiltzen da.

Bai. Gogoan dut gaztetan musikaria den lagun batekin asko aipatzen nuela, Peio Otanorekin, arte diziplina denak biltzen dituen eskola bat beharko genukeela. Arte diziplina guztien oinarria berbera da niretzat: erritmoa eta armonia. Hor-taz, antzerkia, dantza, musika... Zergatik bereizi? Ni musika eskolan hasi izan banintz horretan arituko nintzateke orain, dantzan hasi izan banintz berdin. Hemen bukatu nuen erraza zelako niretzat arkatzak edo pintzelak lortzea.

Galdetu ez dizudan eta esan gabe utzi nahi ez duzun zerbait bada...

Nahiko nuke hitz egin *artista* hitzaz. Ez zait batere gustatzen. Batere ez. Nik "pintura egile" edo "zapata egile" edo dena delakoaren egile esaten diot. Artista hitzak sormen hitzarekin zerikusirik badu, denok gara artista. Jende guztiak jartzen du goizero oin bat lurtean eta esaten du

"zer eginen dut gaur?". Beste gauza bat da tailer batean ez dakit zenbat urte eman ondotik

ofizio konkretu bat ezagutzea, artisaua zara orduan. Ni pinturaren artisaua naiz. Baina ez dakit nork esaten zuen bezala, bizitza honetan amateur izateko besterik ez dizu denborarik ematen.

Gero bada beste kontu bat, bere burua artista hitzarekin identifikatuta ikusten ez duen jendeak pentsatzen duela ez duela dohain hori. Eta hori ez da egia. 40 urtez lanean egon den etxeko andre bat artista izanen da hainbeste denboran landu duen paisaia horretan, baina ez da etxeko lan guztiak ongi egiteko dohainarekin jaio zelako. Lanak ekarriko dizu musa. Musa ez da agertzen, musa hemen dago, tailerlean, espazio-denbora honetan. ●



Arte diziplina guztien oinarria berbera da niretzat: erritmoa eta armonia"

bertako

igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

-rekin BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei


GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Amerika Kopa eta elefantea gela erdian



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Directa-ren ikerketa batetik abiatuta ezagutu dugu iruzurra. Bartzelonan egiten ari den belako Amerika Koparen antolatzaileek argitaratutako audientzia eta bisitari kopuruak faltsuak dira. Gaia garrantzi sozial eta politikoa nabarmena izaten ari da, faltsututako datu horiek izan baitira argudio nagusia 60 milioi euro publiko emateko ekitaldia bultzatzen duten handikiei. Aldi berean, onura eta salbuespen fiskalekin ere saritu dituzte, Espainiako Gobernuaren dekretu baten ondorioz –Yolanda Díazek sinatua–; izan ere, Amerika Kopari Interes Publiko Bereziko Ekitaldi kategoria eman dio dekretu horrek.

Gauza bat argi utzi behar da. Kontua ez da hitzordua porrot egiten ari dela, baizik eta hasiera-hasieratik aurrez pentsatutako iruzur baten aurrean gaudela. Aurreko edizioetan Aucklanden (Zeelanda Berria), Hamiltonen (Bermuda uharteak), San Frantziskon (AEBak) eta Valentzian (Herrialde Katalanak) izandako eragin ekonomikoari buruzko txostenak begiratu besterik ez zen egin behar. Elefantea gelaren erdian zegoen zero minututik, baina inork ez zuen hitz egin nahi, deserosotasun politikoagatik, interes ekonomikoengatik edo kontratuz isilarazita daudelako. Bereziki paper lotsagarria jokatu dute TV3-k, Catalunya Radiok eta Betevé-k. Komunikabide horiek Kataluniako Generalitatearen eta Bartzelonako Udalaren kontrolpean

Zer gertatuko zen Amerika Kopa "lankidetzahitzarmenak" Kataluniako komunikabide guztiakin sinatu izan balitu? Egia ezkutatuko zen diruaren truke

daude, eta instituzio horiek agindua eman zuten estropadetako jaunen interes informatiboetara makurtzeko. Kataluniako Kazetarien Sindikatuak adierazpen deontologiko bat egin behar izan du, goikoen inposaketagatik "prime time"-ean egiazat saldu diren informazio guztiak zuzentzeko.


2007an eta 2010ean Valentzia hirian gertatu zen bezala, lehenago edo geroago egia ezagutzen da, baina Bartzelonaren kasuan kazetariak unean bertan ari dira egia ezagutarazten, urriaren 10erako aurreikusten den amaiera estropadako inaugurazio-ekitaldia oraindik egin ez denean. Amerika Koparik Ez plataformak, 150 eragilek osatuak (auzo, gizar-

te, politika eta kultura arlokoak), hila-beteak zeramatzan irregulartasunak eta gardentasunik eza salatzen, baina hondarrezko gaztelua birrindu ahala, ahots kritikoak areagotu egin dira kulturatik (Ginestà, Ludwig Band eta Maria Jaumeren kontzertuetan, La Mercè jaietan) eta oraindik lanbidean sinesten duten kazetarien aldetik.

Aldatu egin da herritarren pertzepzioa planetako gizonik aberatsenetako seik antolatutako ekitaldi elitista honekiko. Eta hori posible izan da gobernuaren eta elite ekonomikoen kontrolatik kanpo dauden komunikabide kooperatiboen independentzia editorialari esker soilik.

Zer gertatuko zen Amerika Kopa "lankidetzahitzarmenak" Kataluniako komunikabide guztiakin sinatu izan balitu? Kazetari bakar batek ere ezin izango zituzkeen beharrezko orduak eman iragartzen ari ziren datuen faltsutasuna ikertzen, nagusiek ez zioteten utziko. Emaitza: egia ezkutatuko zen diruaren truke. Horregatik da hain garrantzitsua kazetaritza independentea babestea, ez bakarrik sare sozialetan eta hitzez. *Directa*, ARGIA, *La Marea* edo *El Saltoko* erredakzioek harpidedunak behar dituzte independentzia editoriala bermatzeko. Komunikabideen finantzaketan, harpidetza berri bakoitzak laguntzen du dirulaguntzekiko eta iragarleekiko mendekotasuna murrizten. Egiazko eta kalitatezko informazioarekiko konpromiso kolektiboa behar da. ●

Euskaldunen eraztuna



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

PAULA ESTÉVEZ

Gaur egun, gure munduan eraiki diren hierarkia guztiak mundu mailako kolonizazio prozesu baten emaitza dira. Menderatze-hierarkia global horiek elkarren artean txirikordaturiko beste hierarkia zehatzagoek osatzen dituzte, hau da, klasekoek, etnikoek, estetikoek, eta baita linguistikoek ere. Mendebaldeko zibilizazioa deitzen diogun hori XVI. mendean hasi zen erakitzen, eta gaur egun ia mundu osoa estaltzen du. Irudika dezakegun bezala, oso prozesu konplexua izan da, eta azalpen errazek ez dute balio, baina ez dago dudarik, zibilizazio horren eraikuntza-aren oinarri bat nazio-estatu da.

Eta, ai, europar maiteok, pozik egoteko moduko zerbait esan behar dizuet! Gu gara nazio-estatu moderno-kapitalistaren idearen aitzindari nagusiak! Guk esportatu dugu mundu osora behar den bezalako nazio-estatu bat egiteko behar den errezeta. Lehenengo gauza: zu inperialista bazara, eta konkistaren bidez, edo beste modu batzuen bidez, estatu moderno kapitalista martxan jarri nahi baduzu, jakin eta jakinarazi behar duzu zuk ezarritako mugen barruan dauden beste herriak zurea baino askoz eskasagoak direla. Horrek, praktikan, esan nahi du,

besteak beste, hizkuntza batzuk beste batzuk baino hobekak direla. Beste modu batera esanda, estatu kapitalista moderno eraikitzeko hizkuntza bat nagusitu behar da, han hitz egiten diren beste hizkuntza guztien gainetik. Ez edozein hizkuntza, noski, hizkuntza onena aukeratu behar da, zibilizatuena. Adibidez, ez dakit nik, bada, Frantzia, frantsesa, edo Espainia, gaztelania, adibidez. Eta zergatik? Begibistakoa delako beste hizkuntzak baino hobekak direla, noski.

Benoa, bada, pozik egoteko moduko gauza gehiago ere badaukagu. Orain dela gutxi deskubritu dudak zerbait jakinarazi nahi dizuet. Agian batzuek ezagutuko duzue duela mende batzuk hizkuntza hobekak inposatzeko martxan jarri zuten eraztunaren metodoa. Laburpentxo txikia egingo dizuet: eskola barruan herriko hizkuntza (txarra eta ez-zibilizatuak) hitz egiten zuen umeari eraztun bat ematen zitzaion, eta eraztuna gainetik kentzeko adi egon behar zen haurra, beste bati hizkuntza txar hori aditzen bazion, orduan eraztuna hari pasa ziezaien. Horrela egun osoa, eta eguna bukatzen zenean, eraztuna zeukan zigorra jasotzen zuen; zigorrak, nik dakidanez, fisikoak ziren, batez ere.

Metodo horrek bi alde oso on zeuzkan; alde batetik, hizkuntza txarra hitz egiteko ohitura kentzea, eta, bide batez, haurrak salatari bihurtzarekin batera, talde kohesioa apurtzea. Ondo zekiten asmatzaileek oso garrantzitsua dela hizkuntza bat hitz egiteko talde kohesio hori pitzatzea. Mundu osoan aurkitu ditzakegu metodo horren lekukotzak: Europan, Afrikan, edo, nik aurkitu dudak exotikoena, adibidez, Txinan.

Kontua da –beste datu batzuek kontrako esan arte–, artikulua akademiko batean irakurri dudala metodo honen lehen erregistroak, erregistro zaharrena, Euskal Herrian daudela! 200 urtez tortura fisikoak eta psikologikoak herrialdeko ikasgeletan, eta Euskal Herriko umeei gaztelania eta frantsesa inposatzeko metodoa, mundura zabaltzeko modukoa. Zer iruditzen zaizue? Agian, mundu zabaleko kolonialismo linguistikoa hedatzeko proba-banku bat izan gara! Egia da, gure kasuan behintzat, ez duela hizkuntza desagerraraztea lortu, baina esango nuke, hizkuntzen arteko hierarkiaren ideia hezur munitaraino sartu digula, eta hori oso lorpen handia dela, ez duzue uste? ●

Gizonen anaidia akabatzeko premia



HIRUKI LARROXA

Gisèle Pélicot-en kasuak bortxaketatik haratago dagoen arazo bat erakusten du: gizonezkoon konplizitatea indarkeria matxistaren aurrian. Kezkagarria ez da soilik erasoa, baizik eta, gertatutakoa jakinda, egoera ez salatzea erabaki zuten gizonen isiltasuna. Isiltasun-itun horrek, "anaidia" edo "korporatibismo" maskulinoak, erasotzaileak babesten dituelako eta indarkeria matxista normalizatzen duen sistema heteropatriarkala betiketuz duelako. Itun hori haustea, hortaz, funtsezkoa da indarkeria matxista desagerarazteko eta gizarte bidezkoagoa (eta feminista) eraikitzeko.

Gizonen anaidia emakumeen edo disidentzia sexualen aurkako indarke-riazko ekintzak egiten dituztenentzako babeslekua da, haien lagunak leialtasunaren izenean isilduko direla bermatzen baitu. Pélicoten kasuan, bortxaketetan parte hartu nahi izan ez zuen gizonen komunitateak nahiago izan zituen erasotzaileak babestu, anaidiari uko egin baino. Beraz, isiltasun hori ez da neutrala, erasotzaileen boterea indartzen eta betiketuz duen konplizitate aktiboa da. Gainera, isiltasun-itun horrek, erasotzaileak babesteaz gain, biktimak ikusezin bihurtzen ditu.

Anaidia maskulino horrekin haustea erantzukizun etikoa da. *Erasotzaile ez*

izatea ez da nahikoa; gizonok indarkeria aktiboki salatu behar dugu, baita gertukoengandik etortzen bada ere. Ekintzarik ezak indarkeria betiketuz du, eta bada garaia gizonok heteropatriarkatuaren aurkako borrokan dugun zeregina gure egiteko; ez ikusle gisa, baizik eta subjektu eraldatzaile gisa. Beste gizon batzuk leialtasunagatik babesteak gizar-tean onartua izateari utzi behar dio, urgenteki.

Gisèle Pélicoten kasuak gizonen artean sustatzen ari garen harremanak birplanteatzera behartzen gaitu. Horregatik, premiazkoa da maskulinitate hegemonikoa zalantzan jartzea, gizon izatea boterekeriarekin eta menderatzearekin lotzen baitu. Eta horrekin hausteak berekin dakar kode horiei aurre egitea. Baita indarkeriaren gaitzespenen oinarritutako harreman-modu berriak sortzea ere.

Benetako ausardia ez datza beste gizonetik leialtasunean, etikoki jokatzean baizik; pribilegioak galtzea edo kritikei aurre egitea badakar ere. Zeren, bai, etikoki jokatzeak eta isiltasuna hausteak, gizonen arteko harremanak arautzen dituzten arau sozialak zalantzan jartzea eskatzen du, eta aldaketa hori hastapeneko urratsetako bat izango da indarkeria matxistari eusten dioten egiturak desegiteko. ●

Tupperware

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ikasi berri dugu Earl Tupper jaunak Floridako Orlandon, 1947an, sortu zuen mila koloretako ontzi enpresa peko errekarara doala, desagertzeko zorian dela, preseski. Badirudi plastikoak konkurrente larriak dituela, adibidez, linean egiten diren salerosketena edo erabilpen bakarrekiko plastiko zaleena. Duela zenbait egun Tupperware akzioaren kuota zintzilik gelditu zen Wall Streeten, ez dena batere seinale ona!

Tupperware aipatzean, gogora etortzen zaizkigu, munduan zehar, etxe askotako egon-gela munttoetan antolatzen ziren bilkurak, hurbiltasuna hobetsiz, sal-

menta piramidala praktikan emanez: bizkotxak, kafetxoa, tea batzuetan, unibertso femenino gozo eta arrosa baten intimitatean. Ondorioz, guztiz gehienek, *tuperrak* bagenituen sukaldeetan, gure bizitza mugikorraren lagungarri, han hor edo lanean geundela, xokoño batean bazkaltzeko.

Kontsumo-garai erran baten hondarra jotzen du Tupperwareren biharko likidazioak. Batzuek, plastikoa idoki dute jadanik beren eguneroko bizitzatik, besteek, laster egingo dute, eta azkenek, plastikozko film gardenez estali janaria mikro-uhindun labeen sartuko dute...

Gosturik hoberenean. ●

Ez da sexua



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Aldarri eta kanpaina, lege, arau, plan eta aurrekontu, babes-mekanismo eta zigor-makinaria oro gora-behera, etenik gabe jarraitzen dute kasu gogorrek eta jokabide zitatek betetzen albistegiak, tantaka zein zaparradan, eta gizon-desmasiak salatzen protestakintzek, manifestazioek, eta adierazpenek (eta aldian-aldian kontrakarreen agertzen diren ahopeko bestelako mintzo horiek, iradokitzen emakumeok ere bortitz jokatzeko dugula gizonen kontra...).

Urko Olazabal aktoreak esan berri du: *Nevenka* filma gizonen zuzendua da batez ere, gizonen ondorioak ateratzeko beren portaerari buruz.

Eta eskertzekoak dira asmoa eta borondatea, baina etsigarria da ikustea egoera (gizonen emakumeekin abusu eta gehiegikerietan aritzeko joera) ez dela apenas aldatzen. Bat egin dute hedabideetan orain dela 24 urteko gertaera lotsagarriak eta Pélicot kasu are lotsagarriagoaren epaiketak. Ematen du denborak ez duela kontatzen, beti gaudela betiko tokian eta betiko eran, non gizonen (gutxi edo asko) uste baitute nahi dutena

Ematen du sexuaz ari garela, baina sexua azaleko geruza da, estalki deigarri eta morbosoa. Azpian, sakon-sakonean, sustraiak daude, disimuluan pasatzen direnak

egiten ahal dietela mendean-edo hartzen dituzten emakumei (emakume guztiei?).

Nevenkarena bezalako kasuek segitzen dute gertatzen. Eta bitxia dirudi Pélicot jauna izatea bere jokabidean "aitzindaria" (hura lehena, eta haren imitzailea bigarren...). Harrigarria, zinez, gizon hori lehena izatea asmatzen halako plan sofistikatua, hain luze iraun duena, aurrekaririk gabe (aurretik beste gizon batzuk antzekorik egiten aritu gabe).

Eta ematen du sexuaz ari garela, baina sexua azaleko geruza da, estalki deigarri eta morbosoa. Azpian, sakon-sakonean, sustraiak daude, disimuluan pasatzen direnak, inoiz gutxi agerian erakutsiak (eta sexuaz besteko esparruetan ere eragina dutenak).

Batzuetan, norbaitek alfonbra punta batetik altxatu, eta hor dira sasi-bistan sakoneko arazoaren zantzu batzuk. Esaterako, idazle bat (bi, hiru, lau, gehienak emakumeak...) hasten da kontatzen ikerketa burutsuetan jaso gabeak: gizonen izu eta bertigo egoskorak mendetako boterea askatzeko; emakumeon ulerberatasun infinitua gizonen botere- eta kontrol-nahiarekiko; eta guztion berreziketa erraldoi eta orokorraren beharra elkarren begirunean libre bizitzeko.

Euskal idazle batzuk (bi, hiru, lau, guztiak emakumeak...), ari dira orrialdeak betetzen eta zantzuak ematen, eta irakurle anitz ari dira orrialde horiek irakurtzen, hori poza! Baina, ai pena, estatistikek diotenez, emakumei, gehien bat, emakumeek irakurtzen diete... ●

Audio eta bideoen transkripzio eta azpigituluak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa

aditu.eus

Automatikoki eta minutu gutxian Editatzeko eta itzultzeko aukera



aditu
elhuyar





MONDRAGON

Kilometroak eginez

MONDRAGONen kooperatibok
bidea egin dugu euskal kultura,
ohiturak eta hezkuntza babesten.
Aurten Azpeitian dugu hitzordua.



www.mondragon-corporation.com



GAZAREN AURKAKO GENOZIDIOAK URTEBETE

Israelen zigorgabetasunak eta palestinarren erresistentziak ez dute etenik

Urriaren 7ko Hamasen erasoak eta horren aitzakian Israelek abiatutako genozidioak urtebete egin duen honetan, bi irakurgairekin gatzokizue. Batetik, Hamasen erantzuna testuinguruan kokatzen duen Jonathan Cook kazetariaren artikulua. Bestetik, beti interesgarri Moon Of Alabama blogean Libanoko erasoek eragin dutenari buruz argitaratutako analisia. Biak erredakzioan euskaratuak.



Israelgo tortura zentroak ez dira berriak, urriaren 7ko indarkeria eragin zutenak dira

Ez bazara gai ikusteko palestinarren belaunaldi ugariari Israelek egindako gehiegikerien eta Hamasen krimenen arteko lotura kausala, ez duzu arrastorik ere giza izaerari buruz.

 JONATHAN COOK

Urte askoan Megiddoko espetxearen ondoan bizi izan nintzen, Israel iparraldean, non palestinarrek masan torturatzen dituzten guardia israeldarren irudi berriak argitaratu dituen *Haaretz* egunkari israeldarrak. Presondegiaren aurretik ehunka aldiz pasa nintzen. Denborarekin, apenas erreparatzen nien zaintza dorrez eta txarrantxaz inguratutako eraikin gris eta zapalei.

Israel iparraldean Megiddokoa bezalako hainbat espetxe handi daude. Horra eramaten dituzte palestinarrek beren etxeetatik ateratzen dituztenean, askotan gauaren erdian. Israelek eta Mendebaldeko hedabideek diote palestinar horiek “atxilotu” egin dituztela, Israel bere okupazioaren subjektu –edo, hobeto esanda, objektu– zapalduekin legezko prozedura legitimoren bat aplikatzen ari balitz bezala. Egiaz, palestinar horiek bahituak dira.

Espetxeak Israelgo errepide nagusien ondoan daude beti, ustez, israeldarrei la-saitasuna ematen dielako palestinarrek hain kopuru handitan giltzapean dituztela jakiteak. (Ohar gisa, aipatu behar dut gerra krimena dela presoak lurralde okupatu batetik okupatzailearen lurraldera lekualdatzea; baina tira, utz dezagun horretan).

Azken urtebeteko sarekada masiboen aurretik ere, Palestinako Aginte Nazionalak kalkulatu zuen 800.000 palestinarrek –gizonezkoen %40– pasa dutela denbora bat Israelgo espetxeren batean. Askori ez zioten inoiz deliturik leporatu, ezta epaitu ere. Horrek ez du esan nahi ezer aldatuko zukeenik: Israelgo auzitegi militarren zigor indizea palestinarrekiko %100era hurbiltzen da. Badirudi ez dela palestinar errugaberik existitzen.

Aitzitik, espetxeratzea hastapen-erritu beldurgarri moduko bat da, palestinarren belaunaldi ugari pairatu eta Israelen okupazio eta apartheid sistema kudeatzen duen burokraziak exijitu diena. Duela ia 60 urte okupazioa hasi zenetik, tortura ohikoa izan da espetxe horietan, baita hurren aurkakoa ere, giza eskubideen aldeko talde israeldarrek aldian-aldian dokumentatu duten bezala.

Zenbait helburu lortzeko balio dio Israeli palestinarrek espetxeratzeak eta torturatzeak. Palestinarren espiritua zapaltzen du, norbanakoena eta kolektiboa. Traumatizatu egiten ditu belaunaldiz belaunaldi, beldurra eta mesfidantza sortuz. Eta laguntzen dio erreklutatzen Shin Bet izeneko Israelgo Polizia sekretuarekin ezkutuan lan egiten duten informatzaile eta laguntzaile palestinarrek, Israelen okupazio indar ilegalen aurkako erresistentzia operazio palestinarrek zapuzteko.

Erresistentzia palestinar mota hori, argi utzi behar dugu, nazioarteko zuzenbideak baimentzen du berariaz. Bestela esanda, Mendebaldeko “terrorismo” gisa salatzen duena, berez, legezkoa da Bigarren Mundu Gerraren ostean Mendebaldeko berak ezarri zituen printzipioen arabera. Paradoxikoa, emeki esatearren.

Ehunka mila palestinar horiei eta, oro har, gizarte palestinarri sistematikoki eragindako umiliazioek eta traumek –eta “nazioarteko komunitatea” deritzon horren erabateko axolagabekeriak, edo, are okerrago, konplizitateak– ezinbestean elikatu dute estremismo erlijiosoa garai batean nagusiki laikoa zen gizarte palestinarrean.

Mendebaldeak sortutako nazioarteko erakundeek, bere laiotasuna aldarrikatu eta aldi berean balio kristauak goraiatzen dituztenek, ez badute ez justiziarik ez errepaziorik eskaintzen, palestinarrek ondorioztatzen dute justizia aurkitu ahal izango dutela –edo, gutxienez, ordaina–, ez alferrikako eta iruzurrez beteriko “negoiazioen” bidez, baizik eta Islamaren izenean egindako erresistentzia bortitzarekiko konpromiso handiagoaren bidez.

Horrek azaltzen du zergatik sortu zen Hamas taldea 1980ko hamarkadaren amaieran, eta zergatik duen gero eta babes handiagoa. Hamaseko militantzia islamiarrak kontraste handia egiten zuen Al Fatah-ren nazionalismo laiko moldaerrazarekin, urte askoan Mahmud Abbasen zuzendua. Hamasen igoera pozarren landu zuen Israelek. Ulertzen zuen islamismoak Palestinaren kausari balioa kenduko ziola Mendebaldeko herritarren begietara, eta are gehiago lotuko zuela Mendebaldeko Israelekin.

Baina Israelen tortura sistemak –izan Megiddo bezalako espetxe “normaletan”, izan Gazan egin zuen aire zabaleko espetxe erraldoian– Hamas bezalako taldeen artean ere, eragin du indarkeriaren bidez askatzeko gero eta jarrera irmoagoa. Ez bazen aukerarik Israelekin hitz egin eta arrazoitzeko, ezpata bakarrik ulertzen bazuen, hori izango zen palestinarrek Israelekin hitz egiteko erabiliko zuten hizkuntza. Hori izan zen, hain zuzen ere, urriaren 7ko basakerien oinarria.

Urriaren 7a izugarria iruditu bazitzai-zun, baina ez bazaizu izugarriagoa iruditzen Israelek mende erdi baino gehiagok bere kartzeletan palestinarrei egiten diena,



Israelek Gazaren aurkako gudarako propio eraikitako Sde Teiman tortura zentroaren argazki bakanetakoa.

orduan edo ezjakintasun sakonean murgilduta zaude –ez litzateke harriztekoa ikusita Israelgo erregimen despotikoak palestinarrei egiten dienaz dagoen jarreraipen mediatiko falta–, edo negazio-nismo sakonean zaude.

Ez bazara gai ikusteko belaunaldiz belaunaldi palestinarrek pairatzen dituzten gehiegikeria barbaroek eta urriaren 7an egindako krimenek duten lotura kausala, ez duzu giza izaera ulertzen. Ez zara kontziente nola jokatu zenukeen torturatuak izan bazinate zu, zure aita eta zure aitona, Israelgo espetxeren batean. Gurasoek seme-alabei transmititzen dieten trauma da.

Megiddon filmatutako eszenak. Gizon demakratuen irudiak, espetxean jasotako jipoiek txikituak. Ehunka medikuren desagerpena Israelgo tortura ganberetan. Israelgo espetxezainek bortxatutako palestinarren bideoa. Israelgo eta nazioarteko erakundeen berrespina, baietz, hori sistematikoki gertatzen dela. Izugarrikeriek aurpegira begiratzen digute. Baina gutako gehiegik beste aldera begiratzen dugu, gure haurtzaroko pentsamendu magikora itzuliz, non, begiak estaltzen ditugunean, mundua desagertu egiten den.

Israelgo espetxe sistemaren izugarrikeriak ez dira berriak. Hamarkadak daramatzate horrela. Berria dena da, Israelek areagotu egin izana abusuak. Lehen sekretu ilun bezala ezkutatzen zituen izugarrikeriekin gozatu egiten du orain.

Israel galduta dago. Zulo beltz eta genozida batean murgilduta dago. Galdera da: utziko al diozu zeure buruari zulo horre xurga zaitzan? Begiak estaltzen jarraituko duzu? Tortura amaituko al da nahiago duzulako ez ikusi?

** Jonathan Cook Nazarethen bizi den kazetari ingelesa da, nazioarteko berriemale gutxik bezain ongi ezagutzen du Palestinako egoera. (www.jonathan-cook.net)*

BILBO
URRIAK 24, 10:00ETAN
DENOK IRABAZTEKO

>>> #U24LACASILLA


GUTXIENKO SOLDATAREN
BENETAKO
HOBEKUNTZA

ZERBITZU PUBLIKOAK
INDARTZEKO
ERREFORMA FISKALA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Gerra hurrengo fasera iritsi da

Irailaren 17ko astean, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu erabaki zuen Hezbollah-rekin Libanon zuen misil trukea beste maila batera eskalatzea, eta erabateko gerra hastea.



Hainbat arrazoi izan zituen Netanyahu eskalada horretarako. Lehenik, Israel iparraldeko 60.000 kolonok beren etxeak utzi dituzte, eta gobernuak haien segurtasuna bermatu ezean ez dira itzuliko. Bigarrenik, Netanyahuaren gobernuko erradikalek Hezbollah desagerrarazi nahi dute eta mehatxu egiten diote, esanez Israelgo Gobernuak deuseztatuko dutela, Hezbollah akabatzen ez bada (errealistek badakite hori ezinezkoa dela). Hirugarrenik, esperantza egon daiteke Hezbollahk presiopean amore emango duela eta Gaza kanpo utziko duen su-etena onartuko duela. Azkenik, aukera dago Israelek AEBak borrokara eramateko, eta borroka hori Iranen aurkako gerran amaitzeko. Netanyahu hamarkadak daramatza hori lortu nahian.

Irailaren 17an, Israelek eraso terrorista egin zuen Hezbollahko kideen aurka. Kide horiek pertsona-bilagailuak erabiltzen zituzten, alarmak eta aginduak jasotzeko, eta Hezbollahko administrazio zibileko adarreko kideak ziren, ez borrokalari armatuen adarrekoak.

Horren ostean Hezbollahko goi agintari bati egindako eraso larriagoa izan zen. Hezbollahko indar berezietako ofizialekin bilduta zegoela egin zioten eraso. Halere, eraso horrek ere ez du kaltetuko Hezbollahren operazioa. Bermatuta daukate Hezbollahko aginte-katea, ia egoera guztietan. Izan

ere, ofizial goren bakoitzak izendatuta dauka ordezkoa, berehala ardura hartzeko prest.

Israelen bi eraso horiek Hezbollahren erantzuna eskatzen zuten. Ordura arte “pazientzia estrategikoari” eutsi zion Hezbollahk, baina muturreraino iritsi zen.

Israelen erasoari emandako erantzuna orain hasi den gerra handiago baten parte da.

Misilen bidez erantzun zuten, Libano eta Israel arteko mugatik haragoko ekintza-eremu jakin baten barruan. Misil horietako batzuk Haifa hirira iritsi ziren, mugatik 40 kilometro hegoalde-dera dagoen portu eta industria-gunera.

2023ko urriaren 8tik, Israelen eta Hezbollahren arteko gatazka desorekatua izan da. Israelek Libanoren aurka zortzi aldiz gehiagotan egin du eraso, Hezbollah-k Israelen aurka baino. Orain, Israelek erasoak zuritu ditu publikoki, argudiatuta “eskaladaren bidez deseskalatzeko” politika dela, eta, dioenez, horrek ekarriko du Hezbollah-rekin bere aldetik bakea lortzea.

Baina Netanyahuaren kabineteko kide erradikalek sionisten benetako helburuak publikoki kontatzen dituzte. Esaterako, Yoav Kisch ministroak adierazpen hauek egin zituen: “Ez dago inolako alderik Hezbollahren eta Libanoren artean. Une honetan gauzak dauden bezala, Libano deuseztatua izango da. Oso irmoki diot. Libano ez da haiek

ezagutzen dutena izango. Ez naiz Hezbollahren misilak atzemateaz arduratu. Libanoko lurraldetik egindako erasoen prezioa Libanoko Estatuak ordainduko du”. Kazetariak “deuseztatu” terminoaren erabileraz galde-tu zionean, “zehatzagoa” izango zela erantzun zion: “Zuzenduko dut. Ez da deuseztatuko; Libano ez da existituko ezagutzen dugun bezala. Prezio altua ordainduko du Hezbollahren erruz”.

Lur suntsituaren politika darabilte. Suposatzen da azkenean Libano hegoaldea okupatuko dutela eta israeldarren kokalekuak han berrezarriko dituztela.

Gainera, Daniel Hagari Israelgo Defentsa Indarren (IDF) bozeramaileak bideo batean azaldu du Hezbollah misilak jaurtitzen ari dela “zibilen etxetatik”, eta kontatu du hori desegiteko zein asmo dituen IDFk. Bideoan dioenez, ohartarazi du Libanon espezializatutako Sam Heller ikerlari eta analistak: “Israelgo ofizialek diote Libanoko hegoaldeko ia eraikin guztiek hainbat misil ezkutatzen dituztela. Azpiegitura zibilak masiboki suntsitzeko aitzakiak aurreratzen ari dira, Hezbollah eta herri xehearen arteko zatiketa sustatzeko saiakerak dira”.

Irailaren 22tik, Israelek aire-eraso kontaezinak egin ditu Hezbollahren balizko posizioen aurka, Libano hegoaldeko eremu zibil gehienetan. Egun ba-



karrean Libanon 400 pertsona inguru hil eta ia 2.000 zauritu zituzten [irailaren 23an argitaratu zen artikulua]. Libano hegoaldean bizi diren ehunka mila lagunek iparralderantz ihes egin dute edo ihes egiten ari dira.

Hezbollahk instalazio militarrei eta produkzio militarreko industria-instalazioei eraso eginez erantzun zuen. Espero da laster arma sofisticatuagoak erabiliko dituela helburuak erasotzeko Tel Avivin, mugatik 120 kilometrorra, eta harago.

Libanoko kalteen eta biktimen irudi asko egongo dira, baina Hezbollahk Israelen aurka egindako erasoiei buruz informazio gutxi emango dute.

Israelgo Gobernuak (berriz ere) zuzentarau orokor bat eman die komunikabide guztiei, esanez ez ateratzeko argazkirik ez informaziorik, egon daitezkeen kalteei buruz. Erredakzio guztietan

dauden zentsuratzaile militarrek ziurtatuko dute agindu horiek betetzen direla.

Iparraldeko gerrak horrela jarraituko du egun, aste eta hilabeteetan.

Higadura moralaren gerra da. Zein populazio izango da borrokaren amaiera eskatzen lehena?

Noiz arte egongo dira Tel Aviveko herriar mimatuak gau eta egun bunkerretan eserita, aldaketarik eskatu gabe?

Xiiten erlijioak sufrimendua eta martiri gisa hiltzeko borondatea babesten ditu. Libanoko xiitak izango dira amaiera eskatzen lehenak?

Nire aldetik, ez dut inoiz apustu egingo xiiten erlijiotasunaren aurka, ezta Hezbollahk borroka bati eusteko duen gaitasunaren aurka ere.

Iparraldeko gerrak nazioarteko albisteak betetzen dituen bitartean, Gazako gerra genozida sionistak aurrera jarraitzen du.

Israeliek Gazako iparraldea –lau hiri handi dituen– birrintzeko planak ditu, bertan bizi diren 1,3 milioi pertsonari gosea eraginez eta garbiketa etnikoaren bidez.

Netanyahuk plan horiek ofizialki mahai gainean ipini ditu eta espero da jarraitu egingo dituela.

Gaza gatazkaren erdigunean dago. Israeliek Gazan su-etena onartzen badu, iparraldeko gerra ere berehala amaituko da. Netanyahu da irtenbide baketsu baterako bidea blokeatzen ari dena, eta Bidenen administrazioa ere bai, hura babesten ari baita. ●

**Moon of Alabama geopolitikan espezializatutako bloga da eta egileak 'b' ezizenez sinatzen ditu artikulua. (www.moonofalabama.org)*

Enpresak ikasleei edukiak irakasten jarri ditu Lanbide Heziketaren Legeak

Ikasturte honetatik aurrera, Hego Euskal Herriko Lanbide Heziketako ikasleak lehenengo mailatik arituko dira enpresetan, enpresek eurek hezkuntza-curriculumeko edukiak irakatsi eta ebaluatuko dituzte, eta ikasleen ezagutza tekniko eta espezifikoak murriztuko dira, Xabier Jimenez eta Mikel Bilbao irakasleek salatu dutenez: “Hasieratik enpresa batean, haien ebaluaziopean eta jauzi egiteko formakuntza gutxiagorekin, enpresen menpeko bihurtuko dituzte ikasleak”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Espainiako Gobernuaren Lanbide Heziketaren legeak enpresen esku-hartzea are gehiago handitzeak ondorio oso kezagarriak utziko dituela eta Lanbide Heziketako eskolak enpresen zerbitzura jarriko dituela ohartarazi diote ARGIAri Mikel Bilbao Luengas (Nafarroako) eta Xabier Jimenez Baños (EAEko) Lanbide Heziketako irakasleek. Formazioak jasango duen gainbeheraz, enpresek aterako dituzten etekinez eta enpresei lotuta geratuko diren ikasle-langile profilaraz mintzatu zaizkigu. Ikasturte honetan hasi dira legea aplikatzen Hego Euskal Herrian.

Sistema Duala dakar legeak, eskola eta enpresa batuta. Eta sistema honi lotuta, aldaketa erradikala: lehen, curriculum guztia eskolan eman ostean eta ikasgaiak gaindituta, enpresa batera joaten ziren ikasleak, gradu amaieran, enpresako dinamika ikustera eta ikastera. Orain, lehenengo mailatik doaz ikasleak enpresetara –“oraindik jakintza nahikorik ez dutenean, eta ez da eskatzen ikasgai guztiak gaindituta izatea”–, eta enpresan edukiak barneratu behar dituzte, curriculumeko eduki teorikoak irakatsi behar dizkiete

enpresan –lehen ‘instruktoarea’ zuten ikasleek enpresan, orain ‘tutore’ izendapena jasotzen du enpresako ordezkariak–. Ebaluatu ere, enpresako tutoreak ebaluatuko du, berak ziurtatu behar du moduluei lotutako jakintzak barneratu dituela ikasleak enpresan. Gutxienez eduki curricularraren %20 enpresak emango dio ikasleari (400

bat ordu), eta eredu intentsiboa aukeraturaz gero, gutxienez ikasketa planeko edukien %30.

“GEZURRA ESAN BEHARKO DUGU GUZTIOK”

Errealitatea zein izango den? “Paperean dena OK jarriko du enpresak, hau eta beste ikasi dutela, baina praktikan ez da errealia, ez dute inongo edukirik emango –dio Bilbaok–. Hasteko, ezin dute modu pedagogikoan eskaini, zeren ikasle batek kable bat edo antena bat jartzen duenean ebaluatzen dut ea antenaren elementuak ezagutzen dituen, parametroak lortzen al dakien, antena orientatzen dakien... eta enpresetan, gehienez, kable bat jarri eta ebaluatuko dute badakiela egiten. Ezin dute besterik egin, ez dute denborarik, ezta formaziorik ere. Ikusteko dago ea enpresako tutoreei ikastarotxoren bat emango dieten, baina ikasturte hau trufa hutsa izango da”. Iritzi berekoa da Baños: “Dokumentu ofizialetan gezurra esan beharko dugu guztiok, eta ikuskaritzak ez ikusiarena egingo du. Gainera, hainbat lankide haserre daude, irakasle lana enpresetara bideratzen ari direlako, gure lana usurpatzen”.

“ ”

Paperean dena OK jarriko du enpresak, hau eta beste ikasi dutela ikasleek, baina praktikan ez da errealia, ez dute inongo edukirik emango”

Mikel Bilbao



Gure solaskidearen arabera, une bat iritsiko da non enpresek dirua (diru publikoa) eskatuko duten ikasleei irakastearen ordainetan.

Horri lotuta, garbi du Nafarroako irakasleak: “Une bat iritsiko da non enpresak esango duen ‘jakintzen %20 eman behar badut, horren ordainetan dirua (diru publikoa) eman behar didazue’, eta logikoa da, lan bat eta ardura bat eskatzen zaielako; diru-iturri bat gehiago bihurtuko da enpresentzat, eta hala ikusi dugu gainera beste herrialde batzuetan; enpresan bertan tailerrak egiten bukatu dute, ikasleen formaziora bideratuta”.

Aipatu moduan, orain arte ez bezala, lehenengo mailatik joango dira ikasleak enpresetara (batzuek 15 urte izango dituzte), oraindik ezagutzarik apenas dute la eta ongi prestatu gabe, diote bi irakasleek. “Naturalki, lehenengo maila filtroa izaten da, batzuek bertan behera uzten dituzte ikasketak, beste batzuek ikasgai asko ez dituzte gainditzen... baina filtro hori jada ez dago, ikasle guztiak doaz enpresetara”, nabarmendu du Jimenezek. “Oso gaztetatik enpresetako domestifikaziora egingo dute salto”, dio Bilbaok.

IKASTETXEEN ARTEKO LEHIA BASATIAN, ENPRESAK GARAILA

Legeak ikasle guztientzako enpresa bila jartzen ditu irakasleak, eta zentroen ar-

teko lehia kezagarria da, kritikatu du Bilbaok, eta uste du legeak indartuko dituela itunpeko zentroen eta enpresen arteko hitzarmenak, zentro horietako irakasleak joan daitezten enpresetara. Kontuak kontu, irakasleak saltzaile bihurtu direla dio: “Zentroen arteko lehian, enpresetara joan behar dugu gaztetxoak saltzera, enpresa horietan aritu daitezten, beraz enpresa horien zerbitzura gaudе guztiz; nahi dugu gure irakasleak har ditzatela, eta enpresak azkenean hasten dira eskatzen zehazki zer nahi duten, ikasle/langileek zein ezagutza izatea behar duten, zentroan zer irakastea nahi duten”. Lanbide Heziketako ikastetxeek pixkanaka bide hori hartuko duten kezka du irakasleak: “Gure irakasleak hartuko dituzten enpresen gustuko izan nahian, kasu egingo diegu, eta oso larria da, hezkuntzako curriculuma beraiek erabakitzeke bosterea emango diegulako”.

Lanbide Heziketatik nolako irakasleak eta batez ere nolako langileak aterako diren hobeto ulertzeko, legeak dakartzan hiru aldaketa azpimarratu dizkigute irakasleek, elkarren artean lotura dutenak: ikasketa teknikoek gutxitzea,

jakintzaren aldean kompetentziak hartu duten nagusitasuna, eta sortu berri den Kompetentzien Karneta.

Batetik, eduki teknikoek ordu gutxiago izango dituztela salatu dute gure solaskideek (teorian, enpresetan emango dituzte eduki horiek). Horrez gain, Jimenezek azaldu du duela gutxira arte bi talde zeudela Lanbide Heziketako irakasleen artean: Bigarren Hezkuntzako irakasleak (unibertsitateko tituludunak, ingeniariak adibidez, eduki teorikoak emateko) eta irakasle teknikoak (Lanbide Heziketako tituludunak, modulu praktikoak emateko). “Orain, irakasle teknikoekin amaitu dute, jada ez dago LHko titulu batekin irakasleen zerrendan sartzerik eta zeudenak egoera zaurgarrian geratuko dira. Hezkuntzako arduradunen ustez, autoak nola konpondu irakasteko egokiagoa da karrera amaitu berri duen ingeniaria, hamar urtez garaje batean lanean aritu den mekanikoa baino”.

JAKINTZA VS. KOMPETENTZIAK

Bestetik, azken urteetan hezkuntzan oro har pisua hartu duten eta Lanbide Heziketan indartsu sartu diren kompeten-

tziak izan dituzte hizpide solaskideek. Malgutasuna, bizitza guztian zehar formatzen jarraitzeko beharra, ekintzailletza, dinamismoa, (enpresaren erritmo eta aktibitatera) moldatzen eta egokitzen jakitea... gisako kompetentziek enpresen desioei ongi erantzuten dietela gogoratu dute. Kompetentziak laudatzearekin batera, Informazioaren Gizartean jakintzak bigarren mailako direla zabaltzen da gainera: “Ezagutza gutxiesten da, memorizazioa arbuiaitzen eta zehaztasun handiko jakintzak baztertzen, erraz bilatu daitezkeela argudiatuz –dio Bilbaok–. Jakintza batzuk lortuta, ordea, jarraitu dezakezu jakintza berriak lortzeko bidea, baina kompetentziak baino ez badituzu, eta jakintzarik ez, oinarririk gabe ezingo dituzu jakintza berriak lortu”. Lanbide Heziketara ekarrita, adibidea jarri digu irakasleak: “Elektrizista izanik tentsio baxuko araudia ezagutzen badut, zirkuitu mota guztiak menperatzen baditut eta matxurak nola konpondu baldin badakit, langile gisa askeagoa izango naiz, baina lau kable jartzen baino ez badakit, nagusiarekiko menpekoago. Saldu digute kompetentziek ematen digutela egokitzeko gaitasuna, baina egokitzeko gaitasuna jakintzek ematen digute”.

Kompetentzien eredu hori indartzeradator, Bilbaoren iritziz, legearen beste berrikuntza bat: Kompetentzien Karнета. Lehen, graduren bat ikasi eta titulua ateratzen zuen ikasleak; orain, ikasgai batzuk ikasi ahala kompetentzia batzuk aitortzen zaizkio, eta horiekin lan egin dezake, aldi berean bizitzan zehar ikasgai eta kompetentzia berriak gehitzen joan daiteke. “Interesgarria irudi lezake, baina lan konbenioak apurtzen ditu, elkargo eta profesio-familiak apurtzen ditu, indibidualizatu egiten duelako lan-

“”

*Hezkuntzako arduradunen
ustez, autoak nola
konpondu irakasteko
egokiagoa da karrera
amaitu berri duen
ingeniaria, hamar urtez
garaje batean lanean aritu
den mekanikoa baino”*

Xabier Jimenez

“”

*Irakasleok enpresetara joan
behar dugu gaztetxoak
saltzera, enpresa horietan
aritu daitezzen; azkenerako,
hezkuntzako curriculum
beraiek erabakitzeko
boterea emango diegu”*

Mikel Bilbao

gilea: hemengo hiru ikasgai eta hango bi izanda enpresara zoaz eta zein lan kategoria emango dizute? Borroka egiterako orduan, zein gremioren parte zara?”.

EMAITZA: ENPRESEKIKO MENPEKOTASUNA

Bai Jimenezek, bai Bilbaok argi ikusten dute azaldutako guztiaren ondorioa: “Enpresa batean bi urtez, hain gazte, eta hango dinamika eta moduak ikasita, haren menpeko bihurtuko zaitu, beste arlo edo postu batzuetara jauzi egiteko ezagutza eta aukera gutxiagorekin; hainbat kasutan baita sentsazioarekin ere zerbait zor diozula enpresari, handik alde eginez gero huts egingo diozula”. Kaltetuenak ikasle zaurgarrienak izango direla nabarmendu dute, sozioekonomikoki egoera okerragoan daudenak, eta ikasleen arteko arrakala handitu baino ez duela egingo legeak.

Jakintzez ari garela, “enpresaburuei entzuten diegun mantra” ekarri du solasaldira Mikel Bilbao: “Kualifikazio altuko eskulana nahi dutela, baina ez dagoela diote”. Aldiz, euren datuek ez dutela halakorik berresten dio, ez dagoela langile kualifikatuagoen demandarik. Kontrara, kualifikazio baxuko lanak egingo dituzten langileen eskaera dagoela azpimarratu du: “Europa osoan ikusten ari gara produkzio katearen teknifikazio eta automatizazioak erdi mailako kualifikazioa duten pertsonak kaltetzen dituela gehien, eta beraz, duten kualifikazioa baino kualifikazio gutxiagoko lanetan bukatzen dutela, baldintza prekarioagoetan”.

Panorama beltza marraztu dute Mikel Bilbao Luengas eta Xabier Jimenez Baños irakasleek, gurean prestigiotsu saltzen den Lanbide Heziketak enpresen interesak lehenetsi eta ikasleak etorkizuneko peoi bihurtuko dituen beldur. ●



2024ko Euskarabildua

TEKNOLOGIA ARTIFIZIALA BAINO, PERTSONAK ETA KOMUNITATEAK LEHEN LERRORA

Artifiziala ez den teknologia izango du goiburutzat lametza komunikazio enpresak, ARGIA eta Ametzagainarekin elkarlanean, antolatu duen Euskarabildua jardunaldiaren 13. edizioak. Teknologiaren erabilera "etikoagoa, iraunkorragoa eta bideragariagoa" aldarrikatuko dute, eta "betaurreko kritikoz begiratzea". lametzarekin hitz egin dugu jardunaldiari buruzko xehetasun gehiago jakiteko.



2023ko Euskarabildua jardunaldien hitzaldietako bat.

Teknologiaren eta komunikazioaren arloko hainbat adituk eta kidek parte hartuko dute euskara eta teknologia elkartzea helburu duen jardunaldi dibulgatzailean. Urriaren 17an egingo da, Donostiako San Telmo Museoa.

Iametzak aurtengo edizioaren bitartez teknologiaren erabilera “etikoagoa, iraunkorragoa eta bideragarriagoa” aldarrikatu nahi du. Adimen artifizialaren “eztandaren sasoi” dela nabarmendu du, eta “inoiz baino garrantzitsuagoa” ikusten du erabiliko diren tresna informatikoei eta martxan jarriko diren digitalizazio prozesuei buruzko erabakiak “pertsonek behar eta eskubideak lehenetsiz” hartzea, baita teknologia “betaurreko kritikoz begiratzea” ere: “Euskarabilduak ikuspegi kritikoa sakondu eta zabaltu nahi du. Gelditu, ingurura begiratu eta norantz goazen ikusi nahi dugu, eta artifizialaren gaitetik, pertsona eta komunitateei garrantzia nabarmendu”.

DATUEN KUDEAKETA ETA ALGORITMOEN DEMOKRATIZAZIOA

Adimen artifizialak algoritmoak ditu oinarri, iametzaren arabera “problema bat ebazteko eman behar den urratsen deskribapen formal”. Komunikazio enpresak azaldu du datuak algoritmoen lehengaiak direla, eta “ondasun preziatuena”. Azpimarratu du “datu ugari oparitzen” dizkiegula erraldoi teknologikoei, eta “doako zerbitzuaren aitzakian” datu horiek “euren teknologia elikatze” erabiltzen dituztela. Iametzak dio enpresa pribatuen sisteman sartzen diren lehengaiak, datuek eta prozesamenduko arauak “azken emaitza %100 baldintzatzen” dutela.

Iametzak eskatzen du publikoa izatea algoritmoen bitartez ematen den azken emaitza nola eta zein irizpiderekin erabakitzen den, eta, dioenez, “oso garrantzitsua” da jakitea algoritmoak nola eraikitzen diren, horrek zehaztuko edo markatuko baitu eraikiko den

mundu edo gizarte mota. “Arau horiek publikoak balira, segur aski mundua apur bat etikoagoa izango litzateke”. Euskarabildua jardunaldian datuen etikan eta pribatutasunean aditua den Manuela Battaglini abokatuak hartuko du parte, eta algoritmo publikoei buruz hitz egingo du. Abokatuak “governantza demokratiko bat lortzeko beharra” azalduko du, eta testuingurua “botere kontzentrazioei” dagokienez.

Algoritmoen arauak publiko egitea eskatzea “ezinezkoa” dirudiela nabarmendu du iametzak, baina aldarrikatu du administrazio publikoan erabiltzen den adimen artifizialak modu publikoan funtzionatu beharko lukeela: “Herritarrok eskubideak dugu administrazioaren erabakiak zergatik eta nola hartu diren jakiteko”. Nabarmendu du algoritmoek norberaren gustu edo nahiekin bat datozen edukiak eskaintzea dutela helburu, eta horrek gizarteak “geroz eta mundu ikuskera murriztagoa” eta “ez anitzagoa” izatea ekartzen duela.



Iametzaren kudeatzaile Eli Pombo 2023ko Euskarabildua jardunaldietan.

Las redes son nuestras (Sareak gureak dira) liburuaren egile eta kazetari Marta Guerrero Francok “sare kooperatibo eta demokratikoagoak” bilakatzeko proposamenak egingo ditu Euskarabildua jardunaldian. Kazetariak aldarrikatzen du Internet sorreran “deszentralizatu, anitza eta libre” zela, eta proposamenak egingo ditu “berrito Internet guztioa” bilakatzeko.

TEKNOLOGIA, GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO LAGUNGARRI IZATEA

Datuak biltzen dituen “hodeia” konpainia handien kontrolpean dagoela adierazi du Iametzak. Horren aurrean, beharrezkoak ikusten ditu datuen kudeaketa eta zaintza lokalak, “gizakiaren beharretara egokitutako teknologia sortzeko eta lantzeko”, euskarari “balioa emateko”, eta teknologia “gizakiaren mesedera erabiltzeko, eta ez alderantziz”. Teknologiaren jabe bilakatzeko beharrezkoa ikusten du, eta garapen ekonomiko eta sozial “jasangarria” sustatzeko bideak proposatu ditu; esaterako, teknologia propioa garatzea eta kontrolatzea, tokiko elkarte eta kooperatibak saretzea, edota jakintza partekatzea: “Azpiegitura teknikoak eta telekomunikazioak kontrolatzen baditugu, komunitateek beren partaideen beharrei egokitutako teknologia sortu, partekatu eta berrabprobetxatzeko aukera izango dute. Eta hori soilik software libre eta burujabearen bidez lor dezakegu”.

Aurtengo edizioan Euskal Herriko hainbat proiektu eta egitasmo ikusgarritasuna emango die Iametzak, hala nola zerbitzari lokalak eraikitzen ari diren kolektiboei, edota Common Voice egitasmo komunitarioari- lankidetzak irekiko proiektua, ahots-grabazioen datu-base librea sortzeko-. Azken horren bitartez azalduko dute “ahotsaren bitarteko teknologian aurrera nola egin daitekeen”.

HEZKUNTZAN, ERRALDOI TEKNOLOGIKOEN ESKU-HARTZEA

Aurtengo udan Nafarroako Gobernuak Microsoften esku utzi du administrazioa digitalizatzea, “enpresa-lehiakortasuna hobetzea, lan-aukerak sortzea eta talentu digitala bultzatzea” ekarriko duela argudiatuta, eta Eusko Jaurlaritzak 2022an lau urterako lankidetzak akordioa sinatu zuen Google-ekin, ikastetxe publikoetan multinazionalaren tresnak erabiltzea ahalbidetzen duena. Iametzak adierazi du multinazionalak egingdako eskaintzek “tresnak erraztea eta bide erraz bat aukeratzea” ahalbidetzen dutela, oso “baldintza erakargarriekin”, baina Euskarabilduan azpimarratuko dute garrantzitsua dela garrantzitsua dela “burujabetzari heltzea”, nahiz eta batzuetan ez izan biderik errazena. “Beharrezkoa da hezkuntza bezalako esparru publiko eta erabakigarri batean tokiko digitalizazio plan eta estrategiak garatzea, non euskarari eta kalitatezko irizpideei lehentasuna emango zaien. Beharrezkoa da herri batek horretarako gaitasuna garatzea”.


“Hodeia konpainia handien kontrolpean dago eta horren aurrean beharrezkoak dira datuen kudeaketa eta zaintza lokalak, gizakiaren beharretara egokitutako teknologia sortzeko, euskarari balioa emateko, eta teknologia gizakiaren mesedera erabiltzeko, eta ez alderantziz”

Iametzak

Konpainia handiek euskara ez dutela kontuan izaten nabarmendu du Iametzak, euren interes komertzialei begira jarduten dutelako. Gaineratu dutenez, teknologiaren jabetza eskuratuz gero, adimen artifiziala “aliatu” eta “lagungarri” izan daiteke Euskal Herriko kultura eta errealitatea kanpoan ezagutarazteko. ●

"Lehen, itsuak etxean gorderik zituzten"

Sortzez Hazparnekoak (Lapurdi) ez badira ere, berrogei urte baino gehiago daramatzate Étienne Arburua haltsuarrak eta Cathy Arrotcarena hoztarrak Hazparnen bizitzen, eta urteak dira elkar ezagutzen dutela. Itsuak dira biak, eta larunbatero Angelura (Lapurdi) joaten dira Les Cyclopote elkartearekin bizikletan ibiltzera. Nabarmendu dute "biziki ona" dela, lagunekin egoten direlako eta etxetik ateratzen direlako.

 OLAIA L. GARAIALDE



Étienne Arburua

Cathy Arrotcarena

Txikiak zirelarik ikasi zuten Étienne Arburuak eta Cathy Arrotcarenak bizikletan; egun, astero ibiltzen dira. "Bistan da, ez da ahazten", esan du Arrotcarenak. Baionako elkarte bati esker duela hogeita lau urte ezagutu zuen Arrotcarenak Les Cyclopote elkarte. Bizikletan ibiltzeko elkarte bat da, eta tandemean aritzen dira. Arburua duela hogeitaz hamar urte hasi zen elkartean, Arrotcarenak gomendatuta. Tandemak bi pertsonentzako bizikletak dira: aurrean gidaria doa -ikusten duen pertsona bat- eta atzean itsua den pertsona. Argazkietan, François Clavier elkarteko presidentea ageri da gidari.

Gidariaren lana, izenak dioen bezala, gidatzea da; hau da, non dauden, nora doazen eta zer ikusten duten azaltzea eta norabidea zehaztea.

"Esaten digute eskuin eta ezker, eta ez dugu fisik egiten, jarraitu besterik ez", esan du Arrotcarenak. Gaineratu du "fisik ez ikusi" arren, jakin badakitelera zer-nolako giroa dagoen: "Badakigu fresko den edo ez, sentitu dezakegu ez dagoela eguzkirik, haizea...".

Talde handia dira, eta astero aldatzen dituzte bikoteak, denen artean elkar ezagutzeko. "Konfiantza behar da gidariekin. Noizbait gertatu zait ez gustatzea gidaria, baina biziki onak dira", dio Arrotcarenak. "Eta beharrezkoak gu ateratzeko", gehitu du Arburuak. Etxetik ateratzeko bide bat da Arrotcarenarentzat: "Lehen, itsuak etxean gorderik zituzten. Orain, kanpora ateratzen dira, oihanera". Halere, Arburuak nabarmendu du badirela ere etxetik atera nahi ez dutenak edota ezin dutenak: "Denek ez daukate automobila ateratzeko. Ez dago hur-

"Lagunak ikusten ditugu, astean zehar zer egin dugun kontatzen dugu, zer pasatzen den Euskal Herrian..."

bil hiria". Familiaren laguntzaz joaten dira Angelura, eta 50 kilometro inguruko itzulia egiten dute.

SOZIALIZATZEKO TRESNA

Arburuarentzat "biziki ona" da larunbatero bizikletan ibiltzea. Hala ere, ia bi urtez ezin izan du egin, minbizia izan zuelako eta besoa pikatu behar izan ziotelako. Bizikleta egokitu dute proteziarekin erabili ahal izateko, eta duela



gutxi taldearekin hasi da berriz: "Aixe hartu dut; gidariek biziki lagundu didate". Gainera, lagunak berriz ikustean on egiten diola dio.

Horregatik, gogoz heltzen diote Arburuak eta Arrotcarenak asteburuari. "Lagunak ikusten ditugu, astean zehar zer egin dugun kontatzen dugu, zer pasatzen den Euskal Herrian...", esan du Arburuak. Aste osoa solasean aritzen dira bizikleta irteera antolatzen. Izan ere, garrantzitsua da parte hartuko dutenen zerrenda egitea eta bikoteak lotzea. "Plazererako egiten dugu", nabarmendu du Arrotcarenak. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

Arrotcarena: "Eskuak baratzean aritzeko eta zangoak dena egiteko eta pedalei eragiteko".

Arburua: "Eskuak. Gauza anitz egiten ditugu eskuekin: gorputza garbitu, jan... Eta zangoak bizikletarako".



Makro-argazkilaritza mikroa xehetasunez ezagutzeko



Dani Blanco, 'Haziak' liburua jantzi duen argazkilaria erdian, ezkerrean Miguel Arribas 'Kelo' eta eskuinean Marc Badal, liburuaren egileak. Bigarren argazkian haziei argazkiak ateratzen.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Honezkero jakinaren gainean zaude, irakurle, ARGIAren azokako hurrengo salmenta top-a zein izango den: *Haziak. Zergatik eta nola egin zureak* liburua. Edukiz betea dagoena, noski; multinazionalak hazien kontrola izatean duten interesa, bertakoa mantentzearen garrantzia, zibilizazioen historian haziek izan duten bilakaera, eta abar azaltzen dizkiguna. Baina irudi aldetik duen aberastasuna izugarria da eta Dani Blanco argazkilaria egindako lana jarri nahi dugu gaur balorean. Lehen pertsonan kontatu digu nolakoa izan den bidea eta lana egin ahal izateko profesionalki egin behar izan duen ikasketa-prozesua.

ARGIAko argazkilaria kazetaritza-argazkietara dago ohituta, hori du espezialitate, eta beste hainbat arlo kontrolatzen baditu ere, makro-argazkilaritza ez da bereziki horietako bat, nahiz eta lehendik ezagutzen zituen oinarritzko zenbait kontzeptu. Haziak bezalako elementu txikiak

ahalik eta detaile gehienarekin ateratzeko teknika da makroa eta hori egiten ikasi du Blancok liburu hau sortzeko bidean zehar. "Urtebeteko lana izan da eta hasieratik banekien ere makroarekin aritu beharko nuela, bidean joan naiz ohartzen non sartu garen", azaldu digu. "Hasteko, bizi ziklo bat duten elementuekin ari gara lanean eta bakoitzak du bere garaia loratzeko, garatzeko, hazia botatzeko... argazkiak ateratzerako unean oso kontuan hartu beharreko zerbait da, momentua pasatzen bada pasa egin delako; ez da torlojuetako argazkiak ateratzea bezala", esan digu. "Horri gehitu behar diogu elementu oso txikiak ari garela maneiatzen eta xehetasun guztiak ondo erakusteko argazkilaritza-teknika zehatz batzuk behar direla", jarraitu du.

250 argazki inguru ditu liburuak eta bilduma hori osatzeko 2.000-3.000 argazki atera ditu Blancok, gero egokienak aukeratzeko. "Batzuk errazagoak izan


dira eta beste batzuk lan gehiago eskatu didate; tabakoaren hazia da iruditzen jaso dudan alerik txikiena, milimetro erdikoa. Hori ahalik eta detaile gehienekin erakutsi ahal izateko 50-60 argazki atera behar izan dizkiot, argazki bakoitzean haziaren puntu zehatz bat enfokatu, gero ordenagailuan guztiak batuta muntatu egiteko", adierazi digu.

Esfortzua eta lan-karga handia izan badira ere, oso pozik dago argazkilaria lortutako emaitzarekin: "Ahalik eta xehetasun gehiena ahalik eta kalitatetik altuenean lortzea jarri nizkion helburu nire buruari, eta uste dut lortu dugula", diosku Blancok.

Testu aldetik mami handia duen liburua da, haziak sekula ikusi gabeko moduan erakutsiko dizkiguten argazkiz osatua. Altxor bat.

Eskuratzeko, azoka.argia.eus webgutara, zure liburu-dendara edo kooperatibara jo dezakezu. ●

Enarak beti itzultzen dira



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Maule, 1892. Zaraitzu ibarreko zortzi emakume espartingile Zuberoako hiriburutik etxera abiatu ziren, baina bidean, Larrainen, elurteak harrapatuta, hotzak hil omen zituen denak. Zortzietatik zazpiren izenak iritsi zaizkigu: Felicia Juanko, Felipe Landa, Dolores Arbe, Justa Larrea, Felipa Garcia, Agapita Siron eta Francisca Narbaiz.

Zortzi neska haiek “enarak” edo “ainarak” ziren, Erronkaribar, Zaraitzu eta Aragoiko Ansó ibarretako emakume gazteak, 1850 eta 1930 bitartean, urtero Pirinioen alde batetik besterako bidea egiten zutenak, negua Mauleko eta inguruko espartin fabriketan lanean emateko. Enarak bezala, udazkenean abiatzen ziren, urrian, eta udaberrian, maiatza aldean itzultzen ziren etxera.

Baina zortzi neska hauek negu betean ahalegindu omen ziren etxerako bidea egiten, eta ez omen zuten lortu helburua. Mugaz alde bietako prentsak gertatutakoaren berri jaso zuen. *Escualduna* aldizkariak, 1892ko otsailaren 2an, horrela azaldu zuen zorigaitza: “Azken aro gaitz eta elhurtian, Larrañetik aitzinachago agitu da malur bat handia. Neskanegun goian goizik, zortzi neskatila gazte espagnolak phartitu die Maouletik bere paketak buian eta alegantzia bihotzian, etcheat joaiten beizien, Españolat”. Baina bidean elurteak harrapatu omen zituen: “Haimbestenaeki elhurra hasten da kuruchela, sekula nihourk ikhousi ezti bezala; haimbeste nun oren baten barnen bortz zehe beitzen. Han beian arrestatuik izan dira neskatilak ez aitzina, ez gibel egin ahalez. Hotzak hartu ditu, eta hil die. Heietarik seien korpitzak edien tie, karountatuik. Bena beste biak zer egin dira? Gaicho neskatilak!”.

Duela laupabost urte Zaraitzuko Baztordeko presidente Gustavo Goienak, Jone Villanuevak, Ritxi Lizartzak eta beste batzuek, kasuari buruzko albisteak irakurri ondoren, gaia sakonago ikertzea erabaki zuten. Ahalegin horretan beste hainbaten laguntza izan zuten: Patxi Iriarte, Xabier Diaz, Elena Gusano, Do-



Enarak, mugaz bestaldetik neguan Mauleko espartin lantegietara lanera joaten ziren emakumeak, Pierre Cherberoren lantegian. 1892an Zaraitzuko zortzi emakume itzulerako bidean hil omen ziren.

minique Hastoy, Joël Larroque... Baina, alferrrik. Nesken jatorrizko herriak zein ziren ere ez zuten jakitea lortu.

Baina konturatu ziren iturri gehienek ez zutela zalantzan jartzen garaiko prentsak jaso zutena, egiazat jotzen zutela zortzi enaren heriotza. Gainera, gertakaria Axuri Beltza dantzaren jatorriarekin lotzen zela ere ikusi zuten: neskek eskutik helduta hasten dira dantzan, elkarri helduta hotzez hil ziren enarak irudikatuz. Koreografiaren sortzaile Jose Antonio Urbeltzengana jo zuten horregatik galdezka, baina hark esan zien inolako loturarik ez zegoela.

EGIA LE RÉVEIL BASQUE-N

Azkenean, aurtengo martxoan, Ritxi Lizartzak *Le Réveil Basque* astekari elebiduneko albiste bat aurkitu zuen orduarteko usteak gezurtatu zituena. Egia da hasieran zortziak hiltzat jo zituztela, baina denek beren jatorrizko herrietara onik itzultzea lortu zuten. Mauletik irteten eta, bidean zirela, beste pertsona

bat hil zen Lorraine inguruan. Datuak nahastu eta albiste traumatikoa zitzu bizian hedatu zen.

Ikerlariek enaretako batzuen jatorria ere aurkitu dute: Agapita Siron Itzaltzukoa zen, Felipe Landa Esparitzakoa, eta Dolores Arbe, Justa Larrea eta Felipa Garcia Otsagabiakoak. Aurkitutakoaren berri Nafar Pirinioetako *Mendixut* aldizkariako abuztuko alean eman dute, eta oraindik ere zer ikertua badutela nabarmentzeaz gain, honako hausnarketa egin dute: “Gutziz zilegi da, eta beharrezkoa ere, gertakizun eta istorio batzuk dramatizatzea, idealizatzea edo poetizatzea, komunitate bati izaera emateko. Baina beti kontziente izanik istorio horietatik zein dauden benetako gertakizunetan oinarrituta”.

Zortzi enarekin gertatutakoak garbi uzten du *fake news*-ak ez direla gaurko kontua eta, bereziki, emakumeen zaurgarritasuna agerian uzten duten zorigaitzoko kasuak erraztasun handiz hedatzen direla. ●

SASOITU

URRIAN HOBETU
ETA INDARTU ZURE
IMMUNITATEA

AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Kanpora begira" bizi izan garen udararen ondoren, udazkenak geure buruarekin berriro konektatzera, errutinara itzultzera eta bertan nola sentitzen garen entzutera gonbidatzen gaitu. Eta udazkenean zer behar dugu osasuntsu eta energiaz beteta sentitzeko? Garai-ko jakiek gorputzari energia ematen diote, neguko hotz eta hezetasunera prestatzeko.

Udazkenean lehentasuna gorputza barrutik eta konpotik ondo babestea da, negura indartsu eta osasuntsu iristeko. Tenperaturak behera doaz apurka apurka. Beraz, birrikak eta immunitate-sistema indartzen duten jakiak eraman behar ditugu platerera. Hauek dira udazkeneko ezinbesteko barazki eta fruitak: mahats beltza, pikua, piperra, baratxuria eta tipula.

Arreta jarriko diegu kolore more eta zuria duten barazki eta fruituei: hauek lagungarriak dira arnas aparatua, birika, heste lodi, larruazal eta ilerako. Arnas aparatua eta birikak zaindu eta indartzeko baratxuri eta tipulak bereziki garrantzitsuak dira gure plateretan. Zapore pikanteak mesede egiten die. Gainera, gorputza behar bezala ureztatuta izateak garrantzia handia dauka. Beraz, berakatz zopa eta tipula saldak behar ditugu gure menuetan.

Defentsak indartsu izateko, hesteetako mikrobiota sendo egotea komeni da. Barazki hartziak probiotiko interesgarri eta baliotsuak dira.

Kolore moredun fruitu eta barazkiek antioxidatzaile eta sustantzia fitokimiko ugari dituzte eta organoen zahartzea leuntzen dute. Lagungarriak dira inflamazioaren aurka, gernu-bide eta prostatarentzat bereziki.

Ez ahaztu, sukaldean prestatzeko modua zaindu beharra daukagula: organismoak elikagai epelagoak eta energetikoagoak eskatzen ditu, negurako trantsizioan laguntzeko. Saldak, kremak, zopak, lapikokoak eta erregosiak prestatzera animatzen zaituztet.

INTXAURRAK ETA HOSTOAK

Hilabeteroko nire artikuluan arreta jarriko didan intxaurrendoa zertan dabil? Bere fruituak oparitu dizkigu: intxaurren, udazkeneko altxorretako bat. Aberatsa da omega-3 gantz azidotan, proteina, zuntz, antioxidatzaile, bitamina eta mineralen.



Eta hostoekin intxaurrendoa zer egiten du? Bota egiten ditu edo erori egiten zaizkio? Hostoek egin dute beraien funtzioa eta orain momentua da intxaurrendoa behar ez duena, balio ez duena kentzeko, botatzeko, uzteko. Eta energia sustraietara bideratzeko.

Eta gure emozioak eta pentsamenduak nola daude udazkenean? Eragina al dute zer, zenbat, noiz eta zeinekin jaten dugun? Udazkenean gutako askori, tris-turak harrapatzen gaituenean, lagundu egiten digute naturarekin bat egiteak, garraiko janariak eta gorputzaren zaintzak.

Ikasi gorputza entzuten eta babes-ten sasoiko jakiekin. Sasoiu eta osotu babesteko. ●

A ZE FAUNA!

OREINA ALA ORKATZA DA?



LUC VIATOUR / HTTPS://LUCNIX.BE / CC-A-SA-3.0 U



IRATI DIEZ VIRTO

Naturazalaren batek galdera hori irakurri eta pentsatuko zuen seguruenik: “Galdetzea ere! Ez dute zerikusirik!” Egia da, bai, behin ezagututa erraz desberdintzen direla oreina eta orkatza. Baina batzuentzat ez da erraza mendian halako animalia ikusi eta ziurtasunez erantzutea bietako zein den. Eta argazkikoa, oreina edo orkatza da?

Desberdintasun nabarienetako bat bi espezieen tamaina da. Orkatz helduek 15-30 kg arteko pisua izaten dute; oreinek, berriz, 100-200 kg-koa. Hau da, oreinak orkatzen hirukoitza baino gehiago dira tamainaz. Bestetik, animalia ikusi eta bizkor batean muturrari erreparatu diezaiokegu: orkatzen muturra beltza da, eta oreinena, berriz, marroia. Azkenik, bi animalia horien ezaugarri bereizgarria dugu: adarrak. Gorputz-tamainaren

moduan, oreinen adarrak orkatzenak baino dezentez ikusgarriagoak dira. Egitura horrek, ordea, arrak desberdintzeko soilik balio digu, orkatz eta orein emeek ez baitute adarrak. Ezaugarri horiek kontuan izanda, orain lasai asko erantzun dezakegu argazkiko animalia oreina dela.

Behin orkatzetatik desberdinduta, orein arren adarrei erreparatuko diegu, urteko sasoi honetan beteko baitute beren funtzioa. Uda amaitzean eta udazkena hastean dagoenean, irail edo urri aldera, oreinen marraka garaia edo marraoaldia hasten da. Garai horretan orein emeak araldian sartzen dira, hau da, ugaltzeko prest egoten dira, eta arrek, beraz, emeekin ugaltzeko lehia hasten dute. Marro izeneko oihu ozenen bitartez, ar bakoitzak bere nagusitasuna adierazten du. Ar batek baino gehiagok eme berberekin ugaltu nahi badute,

elkarri desafio egiten diote, lehenengo marro bitartez, elkarri parez-pare begiratu gero. Hala ere batek amore ematen ez badu, adarrak erabiliz borrokatzen dira eta garaileak emeekin ugaltzeko aukera irabazten du. Urtero galtzen dituzte adarrak orein arrek, eta urtero sortzen dituzte berriak, geroz eta handiagoak eta mutur gehiagorekin.

Oihu benetan ozenak dira orein arren marroak, baina gaur egun zailak dira entzuten Euskal Herrian. Aspaldi ezabatu genuen oreina gure lurraldetik, gehienbat ehizaren ondorioz. Baina 1950eko hamarkadan, ale batzuk ekarri ziren Andaluziatik, ehizatzen jarraitzeko. Duela urte batzuk eremu babestuetan soilik bizi ziren oreinak Euskal Herrian, Gorbeian eta Iratiko oihanetan, esaterako. Gaur egun populazioa handitzen doa zorionez, eta beste eremu batzuetara zabaltzen ari da. ●

OREINA

(Cervus elaphus)

TALDEA: Ornoduna/Ugaztuna/
Artiodaktiloa.

NEURRIA: Gorputza 165-250 cm.
Isatsa 12-14 cm. 100-200 kg-ko
pisua.

NON BIZI DA? Basoa eta larreak
batera agertzen diren lekuetan.
Ezkutuko ehizak jarraitzen
duen arren, oreinaren banaketa
hedatzen ari da Euskal Herrian.

ZER JATEN DU? Gehien bat
belarjalea. Uda amaieran eta
udazkenean ezkurak, pago-
ezkurak eta gaztainak jaten ditu,
negurako erreserbak biltzeko.

BEREZITASUNA: Marraoaldia ikusi
eta entzuteko moduko prozesu
naturala da.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

BEGIEN EGARRI DIRENEI BEGI EGITEKO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Sekreturik ez esan baratzean. Bai bai, adi baratzean. Zer agi ere atai-zean ibili, begi-belarri. Ezkutatzekorik baduzu ez azaldu baratzean. Patatak (*Solanum tuberosum*) begiak ditu, artoak (*Zea mays*) belarriak, arrosoak (*Rosa spp.*) antena zorrotzak, asunak (*Urtica dioica*) ederki heldu eta ukimena zer den erakutsiko dizu, laharrak (*Rubus spp.*) oratu eta zauria ebakiko dizu eta odola geratu asmoz miazten duzunean zeure dasta hartuko duzu eta usain-belarrak diozunari usaina hartuko dio (edo kiratsa).

Zentzumen guztiak azal-azalean dabil-tza baratzean. Gureak bai, jakina, baina baita landareenak ere. Entzun, ikusi, ukitu, usaindu eta dastatzeko ohiko zentzunaz gain gehiago izan ditzakegun susmoa ez da bart arratsekoa, hotza edo beroa sentitzekoarena, adibidez. Zentzumen horiek azalean ditugunez, kanpoko aditzeko bidea dira. Ba omen ditugu, ordea, baita gure barruko sakonaren berri ematen digutenak ere. Horretan ari direnek zentzumen oraindik ezkutu horiek pertsonetan garatuagoak direla diote. Orain artekoekin bezala gertatuko da, gure alaben alabek argituko dituzte gu orain igartzeko ere gai ez garenak eta zentzumenak zentzunak eta baita sentimenduak ere badituztela frogatu. Orain badakizkigu lehen usaindu ere egiten ez genituenak, landareek ere usaindu, komunikatu (nolabait hitz egin eta entzun), ukitu, dastatu eta ikusi egiten dutela. Iraun eta bizitzeko begi-belarri jarrita daude, etengabe. Esaerak dio: “Oro-begi mutila; katua atai-zean”. Hau ere eguneratu eta esantzaun: “Oro-begi umea; lizarra atai-zean”.

Zentzumenen katalogoaren loditzea eta berritzea ikuskizun dago. Ikuskizun denaren ikuskizuna ikusteko begia behar; eta begi kamuts izan gabe begi egin.

Begi-belarra *Euphrasia rostkoviana* dela dio Martxel Aizpurua botanikaria buru zuen talde zabal batek eginda UZEIk



KOSTKA MARTIN CC0-1.0

1984an argitaratu zuen *Biologia/1 Landare eta animalien izenak, izendegia*-k. Begietarako ura edo kolirioa egiteko erabiltzen da, begiak zorrotzu eta bista argitzeko. Pio Font i Quer izen handiko botanikariak bere *Plantas medicinales, el Dioscorides renovado* ospetsuan formula hau erakusten du begi handitu, makartsu, beteritsu edo bekartsuentzako: artoski garbitutako ontzi batean litro erdi ur hamar minutuz irakin, ontza erdi (14,175 gramo) begi-belar lehorrerantsi, estali eta hozten utzi; egin berritan erabiltzea gomendatzen du.

“Sendikusa” esaten dio begi-belarrari Joan Ignazio Iztueta Etxeberriak 1829ko *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* liburuan; berdina jaso zuen Jose Maria Lakoizketa Santestebanek bere 1888ko *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos*; “sendatu” eta “ikus-

keta” hitzetatik datorrela dio, ikusmena sendatzen duela alegia. Resurrección María Azkuek 1905eko *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegian, Londresen jasotako Luis Luziano Bonaparteren eskuizkribu multzoa aipatuz “sendoikuz” izena jaso zuen. Nondik ote dator “sendoikuz”? Sendikusatik? Sendo ikusitik? Sendo ikuzitik?

Beste esaera: “Ikuskizun, kontaktizun”. Ikustekoa kontatu eta entzun eta aditzeko belarri-belarra. Baina hori beste begiatzeko belarria da, hurrengorako... Bitartean begi-loreekin gozatu. Andoni Urestarazu Umandik 2000ko *Asmo-Iztegia*-n dio begi-loreak begi gozoak direla. Mariano Izetak, aldiz, 1997ko *Baztango Hiztegia*-n dio begi-lorea triste dagoena dela. Lehen aipatutako Londresko eskuizkribuetan, “begi-lore” margaritaren tankerako lorea zabaltzen duen *Aster* generoko landareari esaten zaio. Zeuk ikusi... ●

ELIKAENEA

BERGARAKO
AZOKA PLAZA
BIZIBERRITZEKO
PROIEKTUA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak dira Bergaran kontsumoaz eta lehen sektoreaz lanketa zabalago egiten hasi zirela. Ereindajen kooperatibaren eta Elikadura Mahaiaren sorrerak bultzada izan ziren lanketa orokor horretan. Azken urteotan, azoka plazaren inguruko hausnarketa prozesuan buru-belarri aritu dira. “Bergarako azokak proiektu integrala behar zuela sumatzen genuen, zapatuko azokak funtzionatzen bazuen ere, eguneroko postu finko geroz eta gutxiago baitzeuden, eta proposamen bat behar zen”, azaldu du Aitziber Plazaola Oregi Ereindajeneko eta Elikareneko kideak. Azpeitiko Elikagunea izan dute eredu.

UDALAREKIN HITZARMENA

Irailaren 6an inauguratu zuten Bergarako Oxirondo azokako gune berria, Elikarenean, baina urteetako eta jende askoren lana dago atzean. Azokaren inguruko hausnarketa prozesuan ikusi zuten erai-kinen beheko solairuan, eskuineko aldeko postu asko itxita zeudela. “Ezkerreko postu gehienak irekita zeuden



eta funtzionatzen zuten, eta hori ikusita, erabaki genuen horiek mantentzea eta eskuineko aldean egitea obra, espazio zabal handi bat sortzeko, eta bertan denda berria eta sukaldia eraikitzeko”. Erdiko espazio irekia lehen bezala mantendu dute, baserriarrek asteazken eta larunbatetan egiten baitute azoka bertan.


Hitzarmen bidez, udalak Ereindajen kooperatibaren esku utzi du gune berria kudeatzeko eta dinamizatzeko ardura. 330 bazkide-kontsumitzaile eta 27 bazkide-ekoizle zituen aurretik Ereindajenek, eta proiektu berria abian, espero dute pixkanaka kopuru hori handitzea eta herritar gehiagorengana iristea. “Bazkideek %5-eko deskontua dute erosketa guztietan, informazioa jasotzen dute, lehenetsuna dute produktu batzuetan... baina dendan erosteko ez da zertan bazkide izan”, nabarmendu du Plazaolak.

DENDA BAINO GEHIAGO

Eskualdean ekotzitako produktuek dute lehenetsuna Elikarenean, baita produktu ekologikoen ere, eta eskualdean

falta dituzten produktuak Euskal Herritik ekartzen dituzte. “Gaur egun, ia denetik ekoizten da Euskal Herrian, gauza freskoak hemen hurbilekoak dira gehienetan, eta Nafarroako produktuekin sasoi lutzatzeko aukera dugu”, azaldu du. Badi-kanpotik dakartzaten produktuak ere, eta horiek eredu ekologikotik eta bidezko merkataritzatik eskuratzen dituzte. Aste-eroko erosketa saskia betetzeko, elikagaiez gain denetik dute denda: garbiketa produktuak eta bestelakoak.

Eta saltokiaz gain, sukaldia ere jarri dute martxan. “Sukaldia bertako produktuari irteera emateko beste erreminta bat da, horiek eraldatuta eta prestatuta ere eskaintzea da asmoa”, azaldu du Plazaolak. Plater desberdinak prestatuko dituzte egunero, eta kontsumitzaileek errazio eta menu formatua izanen dute aukeran. “Dendaz eta sukaldiaz gain, hemen bestelako ekimenak ere antolatuko ditugu, jendea erakartzea eta espazio bizi bat sortzea baita ideia, azokek beti bete izan duten sozializazio funtzioa berreskuratuta”, amaitu du. ●



Sareko,
gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoen
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi





72

DONOSTIAKO ZINEMALDIA



JORGE FUJBUENA / DONOSTIA ZINEMALDIA

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

72. edizioan ere ez da polemikarik falta izan. Zezen tortura erakutsi ez ezik, inola kuestionatzen ez duen dokumentalak irabazi du Urrezko Maskorra. Hauxe da datozen egun eta asteotan –baita zinemetara iristen denean ere– elkarrizketa askoren mintzagaia izango dena: zuzendariak dio ez dela ez taumakiaren aldeko ez kontrako dokumentala, eta, kritikagile askoren iritziz, arrazoi du; hala ere, "neutrala" izan daiteke horrelako kontakizun bat? Zezenen aurkako tortura gaitzesten ez duen dokumentala, soilik da toreadorearen "erreturatu"?

José Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak aitortu du festibala amaitu eta biharamunean, *Tardes de soledad* lana Sail Ofizialean sartu ala ez, eztabaida sutua izan zutela antolakuntzako

programatzaileen artean. Eta ekartzea erabaki zela, guztiak ados egon ez arren.

Dokumentalari ezin balio zinematografikorik kendu, hala ere. Soinu eta irudiaren kalitate aldetik, ikaragarria da Albert Serraren ekoizpena. Zezenaren hatsa ondo baino hobeto entzuten da, baita toreadorearena ere, ikuslea bertan balego bezalaxe; eta ez plazan bertan, baizik eta toreatzailearen eta zezenaren artean, alboan.

Gordina, krudela eta basatia da dokumentala. Zezenketekin amaitu behar dela ondorioztatzeko artxibo grafiko aproposa izan daiteke, ordea. Baiezta-pen bat.

AKTORE ONENA, LOPEZ ARNAIZ

Lan handia egin du Patricia Lopez Arnaiz gasteiztarrak *Los destellos* pelikulan, Pilar Palomerok zuzendua.

PALMARESA

Urrezko Maskorra:

Tardes de soledad (Albert Serra)

Zuzendari onena:

Laura Carreira (*On Falling*) eta Pedro Martin-Calero (*El llanto*)

Interpretazio protagonista onena (ex aequo):

Patricia Lopez Arnaiz (*Los destellos*)

Taldeko interpretazio onena:

Pierre Lottin (*Quand vient l'automne*)

Gidoi onena:

François Ozon eta Philippe Piazza (*Quand vient l'automne*)

Argazkigintza onena:

Songri Piao (*Bound in Heaven*)

Epaimahaiaren sari berezia:

The Last Showgirl (Gia Coppola)

Euskal zinemaren Irizar Saria:

Chaplin / Espíritu gitano (Carmen Chaplin)

Publikoaren saria:

En fanfare (Emmanuel Courcol)

Eider Rodriguez idazlearen *Bihotz handiegia* liburuko lehen narrazioan oinarrituta dago. Hain zuzen, Isabel, Ramón eta Madalenen istorioa kontatzen da. Senar-emazteak aspaldi dibortziatu ziren, harremana galdu zuten erabat, baina Ramón oso gaixo dago, azkenetan eta bakarrik. Madalen alabak eskatuta, Isabelek lagundu egingo dio.

HERIOTZA ETA OSASUN-MENTALA, LANGILE KLASEAN

Gizartean puri-purian dauden gaiak jorratu dira, nabarmen, aurtengo Sail Ofizialean. Heriotzaren aurreko uneen inguruan –*Le dernier soufflé*, *Los destellos*, *Bound in Heaven*–, osasun-mentalez –*Hard Truths*– eta langile klasean gaur egungo bizimodu prekarioan –*On Falling* eta *Hard Truths*– ardatzu dira hainbat pelikula. ●

Euskal zinemaren gala

📷 DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Elena Iruretak jaso zuen Zinemira sari nagusia, bere ibilbidearen aitortza gisa. Horrez gain, Edurne Azkarate saritu zuen Euskal Aktoreen Batasunak, *Irati* filmean egindako lanagatik, eta Bultzada saria jaso; Paul Urkijok ere jaso zuen garaikurra, Euskadiko Zinema Aretoen Elkarteak emanda, aipaturiko pelikularen arrakastagatik; Euskal Gidoigileen Elkarteak, berriz, Michel Gaztambide eta Victor Erice saritu zituen; eta, azkenik, Victor Iriartek jaso zuen Egile Berriak saria. ●



Hainbat gomendio



Bound in Heaven

Zuzendaria: Xin Huo
Herrialdea: Txina
Iraupena: 109 minutu
Estreinaldia: Ez dago ezarrita

Heriotzari ihes egin, aurrerantz. Gaixotasun terminala duen gizonak horixe egingo du, maitale, adiskide eta bidelaguna alboan. Film gogorra baina baikorra, irudi eta soinu ederrekoa.

On Falling

Zuzendaria: Laura Carreira
Herrialdea: Erresuma Batua - Portugal
Iraupena: 104 minutu
Estreinaldia: Ez dago ezarrita

Langile klasearen erretratu bat. Portugaldar gazte bat Eskozian bizi da, almatzen ikaragarri handi batean lanean, bakarka, isilean, denboraren aurka. Ken Loachen *I, Daniel Blake* filmaren tankerakoa.



Los destellos

Zuzendaria: Pilar Palomero
Herrialdea: Herrialde Katalanak - Espainia
Iraupena: 101 minutu
Estreinaldia: Urriaren 4an, zinemetan

Bihotz handiegia-ko lehen narrazioan oinarritua. Isabelen senar ohia gaitxo dago, hiltzorian, eta Madalen alabak eskatuta, lagundu egingo dio. Isiltasunek eta begiradek asko esaten dute. Aktoreen lana, azpimarratzekoa.

Conclave

Zuzendaria: Edward Berger
Herrialdea: Erresuma Batua - AEB
Iraupena: 118 minutu
Estreinaldia: Abenduan, zinemetan

Ezustean Aita Santua hil da, eta konklabea antolatu beharko du protagonista kardinalak. Vatikanon elkartuko dira. Lau hautagai, bakoitza punta batekoa, eta sekretu zikin ugari sotanaren pean. Entretenitu eta egin barre.





En fanfare

Zuzendaria: Emmanuel Courcol

Herrialdea: Frantzia

Iraupena: 103 minutu

Estreinaldia: Azaroaren 27an, zinemetan

Bi anaien arteko erlazioa: bataren errudun sentimendua, bestearen erremina. Gaixotasun batek elkartuko ditu, baita musikak ere. Pelikula gogorra, ondo landua eta kontatua. Ez du alferrik irabazi publikoaren saria.

Emilia Pérez

Zuzendaria: Jacques Audiard

Herrialdea: Frantzia

Iraupena: 130 minutu

Estreinaldia: Abenduaren 5ean, zinemetan

Droga kartel bateko burua abokatu entzutetsu batekin jarriko da harremanetan, enkargu baterako. Identitatearen inguruan asko hitz egiten duen drama musikala da; musikal gisa ona, eta film moduan are hobea.



Parthenope

Zuzendaria: Paolo Sorrentino

Herrialdea: Italia - Frantzia

Iraupena: 136 minutu

Estreinaldia: Azaroan

Edertasunaren inguruan mintzo den pelikula, 1950ean kokatua. Inoizko emakumerik ederrena balitz bezala aurkezten den protagonista, Parthenope, hainbat gairekin disertatuta: erlijioa, aberastasuna, pobrezia, giza-jokabidea...

Casa en llamas

Zuzendaria: Dani de la Orden

Herrialdea: Espainia - Italia

Iraupena: 108 minutu

Estreinaldia: Udan estreinatua zen aretoetan

Komedia dramatikoak. Familia bateko amak udako etxea saltzea erabakitzen du, eta senideak batuko dira etxeak azken hondarrak jasotzera. Familiako aita ere agertuko da, bikotekide berriarekin, etxea saltzearen aurka.





Hitz gezidunak

... KANPOKO, EZOHIZKO UHOLDE UR	BALIO GUTXIKO DIRU ZAHAR MALKO HANDI	ESKOLATU, IRAKATSI	HALABEHAR (ALDERANTZIZ) LEGEZ	ZERGA EZAGUNA ALFABETOKO AZKENA	DAGOENENKO * JAIA	BIRAKOR GIZA ITXURAKO MAKINA	
		LAPIKOKO IZENA (LABURDURA)					
TASA * LELOA				BIDEXKA BAT ERROMA-TARRA			
					HARRI URTUA LOTAN		
SUBSTANTZIA KANTITATEA NEURTZEKO UNITATE	ALDE!, OSPA! NORBAITEN ORDEZ ARI DENA					... EGIN, ERABAT ASE EGOKI	
		ZAIN EGOTEA				PILA, MULTZOA ONTZI HANDI	
FRANTSESEZ, KALEA DISKO KONPAKTU							
	SUFREA KUPELAK					MODU ATZIZKIA IRITZI, ABURU	BOKAL PUNTUDUNA ONGI
AUPA, IEPA! * HERRIA		IZAN EZIK, SALBU DOZENA ERDI (ALDERANTZIZ)				... ZEDONG, LIDER TXINATARRA ALDAPA	GIZONEZKO IZENA
				MUSIKA SAILBURU (LABURDURA)			
KALTZIO OXIDO KOKOTSAREN AZPI			LORTZEKO LANAK IZANIK FOSFOROA				
				KOPETA			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

				2	8	5		
		6	8	4			7	3
								2
6	7		5		4	3	8	9
	5	2		7	8	6	1	
		9		6		7		5
2				9			4	
	1		4			2		7
		5			6		3	1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Hitz zakarrak esanez, eztabaidan.
- Bizitasunik gabe.
- Ibai arrain.
- Sei karratuko poliedroa.
- Aldi jakin baterako janari kopurua. (pluralean)

EBAZPENAK

7	4	5	2	8	6	9	3	1
9	1	8	4	3	2	6	7	
2	6	3	1	9	7	5	4	8
4	8	9	3	6	1	7	2	5
3	5	2	7	8	6	1	4	
8	6	7	1	5	2	4	3	8
9	3	7	6	1	5	4	9	2
5	2	6	8	4	9	1	7	3
1	9	4	7	3	2	8	5	6

K	O	K	O	O	K	O	K	I				
K	A	R	E	K	O	S	T	A	R	I	K	
V	A	Z	P	E	I	T	A	S	O	I	N	U
E	U	P	M	A	V	U	R	K	O			
C	D	S										
R	U	E	P	E	G	A	R					
M	O	L										
L	O	T										
I	Z	P	I	Z	I	Z	I	Z	I	Z	I	Z
I	D	O	R	I	N	D	I	N	D	I	N	D
U	H	A	R	E	L	T	Z	E	K	A	R	I
O	A	H	U	B	J	I	B					



PARTIEN TEATROA

Atera kontua(k)

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Bezeroak kontua eskatzen duenean izan ezik, tabernariaren ahotsa entzuten da. Eta nagusiak kontuak eskatzen dizkionean izan ezik. Antzezlan honetan tabernaria da protagonista bakarra, eta ikus-entzuleak ikusi eta entzuten du normalean ikusi eta entzuten ez den publikoa.

Bizitza erdia edo gehiago darama langileak taberna horretan lanean. Sobera ezagutzen ditu bezeroen aurpegiak, onak eta txarrak: euren maniak, kexak, edariak, gehigarriak, alkoholak, kafeak eta gustu musikala. Ondo ezagutzen ditu txoko guztiak: non gordetzen diren botilak, non kupelak, non txanponak eta non billeteak bezeroaren bistara egoteko gehiegi direnean. Nola zabaldu herdoilduta dagoen pertsiana, nola egin azkar eragiketa etengabe igotzen ari diren prezioekin eta zenbatean behin kendu hautsa nagusiaren eta haren emaztearen argazkiari. Badaki behar adina apar

botatzen garagardoari eta badaki, batez ere, bi behatzeko distantzia mantentzen edalontzitik kañerora. Hala ere, ez du berak agintzen eta hori ere jakin du.

Absurdoa da bakarrizketaren mui-na, absurdoa bezain errealista, errealitatea bezain absurdoa. Komedia eta tragedia nahastea eragiten du horrek: errealitate gordinaren iluntasuna eta kontatzeko moduaren grazia. Iraupen laburreko lana da, ordu erdiko kontua, nahikoa pertsonaia nagusiaren bizitza hankaz gora jartzeko, baita barrenak askatzeko ere: alkohola txarra da zerbitzatzen duenarentzat, ez, ordea, gaintzekoentzat. Turistifikazioak ekonomikoki indartzea dakarkio ostalaritzari, ez, ordea, langileari. Bizitza osoa bertan lanean darama, ez ordea, erabakiak hartzen. Gogoeta oro salaketa bihurtu nahi du, baina bere lekura zintzo itzultzen ere ikasi du, amorrua ez dadin urrutiegi joan. Atera kontuak.

TABERNARIA. INSTRUKZIOAK BOTATZEKO ONDO BAT KAÑA

EGILEA ETA ZUZENDARIA: Patxo Telleria

AKTOREA: Mikel Martinez

NOIZ: Irailaren 20an

NON: Biltxokon (Baiona)

Aktorearen joan-etorri urduriek ekin-tza dakarkiotte pentsamenduari eta erritmoa ematen diote istorioari. Gidoilariaren lana bikaina izan da, dramaturgia guztia: istorioa kontatzeko modua, protagonistaren izaera simple bezain konplexua, edo taberna zulotik munduaz hitz egiteko jarritako abiapuntua –amaieran ematen dena, istorioa ez baita orden logikoan kontatzen-. Eta formatua, mikroantzerkiarena, ipuinen gisan ideiak eta istorioa bera konprimatuta ematearena, hitz bakoitza zainduz eta pisua emanez. Hala, paper berezia jokatu du Baionako Biltxokok. Ikusleak tabernako ohiko bezeroak eta pare bat satelite gehiago izan baitira. Argumentuan bezala, tabernariaren borondatea kaña bat ondo botatzeko jakinduria betiko bezeroekin partekatzea izan da. Giroa hasieratik izan da gertukoa eta berezia. Harrizko partetek, egurrezko bankuek eta arte erakusketak jaso gaituzte, ondo botatuko kañek eta euskarazko musikak. ●



LIBURUA

Joan-etorriko txartela



LIBROS LIJEROS

ITZULERAK MIREN AGUR MEABE

ELKAR, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

az kaleratu zuen Miren Agur Meabek *Itzulerak* eleberria. Pertsonaia nagusiak gazteak direnez, gazte literatura dela esan genezake, baina literatura ona denean, gazte zein helduentzat da, eta liburu honekin hala gertatzen da.

Hasieran Estefanari jarraituko diogu eta XVI. mendetik XXI. mendera eramango gaitu, baina gero Katalinekin kontrako norabidean joango gara. Gontzal, bigarrenaren nebak, bi aldiak harilkatzen saiatuko da, familiaren genealogia egiten eta trukaketa hori ikertzen.

Horrela ezagutuko dugu Euskal Herriko orduko bizimodua, lehengo eta oraingo baldintza materialak, hierarkia sozialak, sinesmen eta ohiturak kontrastatzen eta Martija Jauregi lekeitiar jatorriko sendagile nafarra ezagutzen.

Gorputzaren eta arimaren minak osatzen saiatuko dira Martija eta Katalin, sendabelarren laguntzaz, besteak beste, eta jauntxo feudalen eta inkisizioaren jazarpena jasango dute horregatik.

Euskal mitologia, baladak, kantuak eta atsotitzak aurkituko ditugu, baita lurrarekiko eta naturarekiko gertutasuna ere. Suarekin hasiko da nobela, eta sugarrek itsasoko uretara bultzako dute Estefana. Baina liburua haizeak zeharkatu eta dena mugimenduan ipiniko du, bizitza eta heriotzaren artean denboraren inguruan dantzan.


Euskal literaturan gutxi landu den literatur generoa jorratzen da: denboran zeharreko bidaiena, fantasia eta zientzia fikzioaren barruan, eta esker-tzekoa da. Gainera, euskal kulturaren ondareaz jabetzeko aukera ematen zaigu sustrairik gabeko gure garaian.

Historian murgilduko gara, familia eta etxea erdigunean direla.

Ezagutza eta jakituria zientziak, arrazoiak eta pentsamenduak soilik ematen ez dutela defendatzen dute lan honetako pertsonaiek; senak, zentzumenek, ametsek eta naturak behinola zuten indarra eta eragina ekarri eta berritzen ditu, hitzaren indarrarekin batera.

Meaberen lanetan hitz jokoak, narrazio poetikoa eta unibertso sensoriala izan ohi ditugu. Usaindu eta sentitu daitekeen lur hezea, ilea harrotzen digun kresala, emakume indartsu eta sentiberak, gure kultura biziaren keinuak.

Itzulerak izena du lanak, begiak atzera itzuli behar direlako bizitzan aurrera jarraitu ahal izateko. Bizitzaren bidaiaren fikzioaren bidez iraganera eta etorkizunera joan-etorriko txartela izatea ederra delako. ●



MUSIKA

Zergatik den Chill Mafiarena azken aldiko agurrik beharrezkoenetako bat



AGUR ETA OHORE X ALLÁ VA LA DESPEDIDA CHILL MAFIA

2024

XALBA RAMIREZ

Chill Mafiak inauguratu zuen aroak lurperatu du Chill Mafia. Denak ez duela zertan betirako irauin, hori argi baino argiago dugu. Eta hobe dela orain, irauteagatik irautea baino. Begira Gatibu: 25 urte matraka ematen, eta azken esprintean erakusten digu bere benetako aurpegia. Tira, benetako aurpegia baino, bere betikoa, baina onartezin.

Alex Sarduiaren taldeak agur esan zuen egun berean esan zuen agur Chill Mafiak. Eta gero, gerokoak. Baina irakaspen on bat da. Chill Mafiaren aurretik, ia ezinezkoa zirudien euskal kulturako ikonoak ukitzea (ikus Bizardunaken saltsa hura). Berreskuratu zuten lotsagabekeriari esker daukagu *Alesardui* kanta, eta oxala kantzelazio fase berri baten hasiera.

Baina itzul gaitezen. Gauza bat da proiektu bati agur esatea, eta bestea aro bati agur esatea. Chill Mafiak eredu berri bat jarri zuen mahai gainean. Euskal es-

zena goitik behera eraldatu zuen, eredu berriak ekarri eta baimenduta. Belaunaldi berri bat dago, ahots propioz garaia irakurtzen. Pospandemiak ekarri zuen eztabaidaren bolbora izan ziren iruindarrak. Eta eszenatoki ezberdinean gaude orain, hiru urte eskas igarota.

Baina ez da nahikoa *duendea* edukitzea. Proiektu bat behar da aurrera egiteko. Talde batzuen proiektua estilo bati jarraitzea da, beste batzuen proiektua marketin estrategia, eta beste batzuk proiektu politiko-estetiko batetik gertuago daude. A, baina azken honetan ez bada edukirik, orduan taldeak norabidea galtzen du.

Asko jakin gabe, ausartzen naiz esatera Chill Mafiak lortu zuen arrakasta itzelak jarri zituela elkarrizketan Espainiako olatu berriarekin, eta bi ildo bereizi zirela. Neobakalismoa, neo-punka eta hyperpoparen ildoak; eta, bestetik, euskal-zera berriarena: sample zaharrak eta jota berriak, alegia.

Taldeakideak bi ildo horien arteko talkan ikusten ditut, eta esango nuke talka horrek baliogabetu duela Chill Mafia.

Albert Pla etorri zait gogora. Maradona futbolari eta erasotzailea hil zenean, he-dabideak hura zuritzeko ahaleginetan ibili ziren, drogadikzioa alde batera utzi behar zela, eta futbolearen zentratu. Eta Plak, ezetz: "Niri Maradonaren futbol fazeta ez zait inporta. Niri axola zaidana da, hain zuzen, bere alderdi drogadiktoa". Chill Mafiarekin ez al da antzeko? (Ez naiz drogaz ari eeee). Bost axola Chill Mafiak zenbat areto bete-tzen dituen, zenbat kantu, zenbat *kolabo*. Niri interesatzen zitzaidana zen haien piro-mania gaitasuna. Hori gabe zer?

Disko triste batekin esaten dute agur. Baina argi dago, berreskuratu dute Euskal Herrian gauzak bestela egin daitezkeela sinestea. Eta argi dago balio zuela, eta gazte hauek balioko dutela beste saltsetan ere: Eskerririk asko berpizkundera! ●

Horrelako izugarrikeriak ikustetik libratu gara

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Boris Johnson, Erresuma Batuko lehen ministro ohia, burutik jota dago. Orain zalantzarik gabe esan dezakegu, datuak dauzkagu. Berak emandako datuak, endemas. Politikari orraztezinak laster publikatuko duen liburu berriaren pasarte bat aurreratu zuen joan den ostiralean *Daily Mail* tabloideak eta, hor kontatzen denaren arabera, 2021ean armada britainiarra Herbehereak inbaditzeko zorian egon zen. Hantxe baitzeuden, Leidengo biltegi batean, englandarrekin behar-beharrezko zituzten Covid-19aren aurkako txertoen bost milioi dosi, Europar Batasunak, hilabetetako negoziazioen ondoren, askatzen ez zituenak.

Egoera hil ala bizikoa zela pentsatuta, Johnsonek mahai ganean jarri zuen bere armadak Mantxako Kanala gurutzatzea. A ze erokeria, e? Ba, antza denez, bere aholkularien mutur okertuak ikusi zituenean –eta, imajinatzen dut, MI6ak bederatzigarren aldiz errepikatu zionean 007 agentea pelikuletan bakarrik existitzen dela–, orduan eta ez lehenago baztertu zuen ideia hura.

Esandakoa, burutik jota. Inoren kasukoan ez baita kabitzen ondoko estatu burujabeen zure militarrek horrela sartzea. Izan ere, behin hori eginda, zer da hurrengo? Ba, ondoko estatu burujabeen gauza militar gehiago egitea, noski, bizilagunaren mugetan sartzeko parafernalia guztia martxan jarri ondoren, bueltako bidaian txerto purtzil batzuk bakarrik ekartzea ez baita errenta. Behin hasita, zergatik ez konkistatu herrialde osoa?

Beraz, nik uste, Royal Air Force guztia bidaliko zuela Johnsonek Haga, Utrecht, Rotterdam bonbardatzerara; ondoren lehertuko zituzten Arnhem, Eindhoven, Amsterdam. Eta lehenbiziko ospitalea txikimila puska eginda uztean, Erresuma Batuko defentsa ministroak esplikatu zuen eraikinaren sotoan Herbehereen de-

fentsarako miliziek bunker bat zeukatela, hura suntsitzea zela helburua. Ondorengo hilabeteetan bonbardatuko zituzten ospitale, eskola, haurtzaindegi eta etxebizitza guztiekin antzeko aitzakiak erabiliko zituzten, puntu batetik aurrera aitzakiekin denbora galtzeari utziko zioten arte.

Hura genozidioa ote zen? Intelektual guztiak ez zetozen bat. Bitartean, bomba bonbaren ganean, Herbehereetako hirigune guztiak lurraekin berdinduta geratuko ziren azkenerako. Eta egunero-egunero telefonoko pantailan ikusiko genituen ume holandar mutilatuak, zati-katuak, imajinatu ere egin ezin diren moduetan zitzikatatuak; eta haien gurasoak, duela gutxira arte besoetan zituzten haurren azken gorputz atalak askatu ezinda, zerura begira, ez datorren jainko bati laguntza eskatuz bezala, ulertzen ez dugun hizkuntza batean erreguka.

Eta denak Herbeheretara begira egongo zirela probestuz, Gibraltarretik kolono armatuen konboiak aterako ziren, Jerez, Malaga eta Cadiz okupatzerara armada britainiarren sostenguekin. Hango bizilagunak kanporatzea salatuko zutenei

“antiprotestantismoa” leporatuko zieten Erresuma Batuko medioek, baita beste herrialdeetako hedabide ez gutxi ere. AEBetako gobernuak, ordurako, mezu bat argitaratuko zuen, esanez “sakonki arduratuta” zegoela Europako azken gertakarietan, gatazkan inplikaturako agenteak su-etena negoziatzerara animatuko zituen eta, bitartean, Erresuma Batua armaz hornitzen jarraituko zuen.

Belgikak lehenbiziki eta ondoren Danimarkak, Norvegiak eta Irlandak beren baliabide militarrek Herbehereen alde jartzeko erabakia hartzean berriz, Erresuma Batuaak duda izpirik gabe ekingo zion haiek bonbardatzeari ere, 300 edo 400 hildako egunero. Osloren erdigunean 85 tona lehegailu jaurtitzeko agindua Nazio Batuen Erakundeko New Yorkeko egoitzatik emango zuen Boris Johnsonek; eta zakila are gehiago erakusteko, haren prentsa-kabineteak une horren argazkia zabalduko zuen prentsan.

Eskerrak, beraz, Boris Johnson jada ez dela Erresuma Batuko lehen ministro. Horrelako izugarrikeriak ikustetik libratu gara. ●



Irauteaz

Onintza Enbeitarekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Lagundu euskal kazetaritza independentea ikastetxe guztietara eramaten!

Eskatu zure hezkuntza
zentroko arduradunei **ARGIA**ko
harpidetza egiteko

